Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA.10. ZENBAKIA. MARTXOA. 1994

10

BIDERAKO ARRASTOAK (II)

EUSKAL POESIA ETA SAIAKERAKO
ZENBAIT LIBURU AZTERGAI
(1968-1993)

COMMISSION OF THE EUROPEAN COMMUNITIES

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA. 10. ZENBAKIA. MARTXOA 1994

10

A U R K I B I D E A

BIDERAKO ARRASTOAK (II)

EUSKAL POESIA ETA SAIAKERAKO ZENBAIT LIBURU AZTERGAI
(1968-1993)

LEHEN ATALA: POESIA

11
Hogei urte. DANIEL LANDART
Bizitza nola badoan. ITXARO BORDA
Luzien Etxezaharreta

21
Hostoak. Gaia eta gau-aldaketak. TERE IRASTORTZA
Amaia Iturbide

27
Balizko erroten erresuma. KOLDO IZAGIRRE
Xabier Mendiguren Elizegi

35
Dordokak eta Elurrak. IÑIGO ARANBARRI
Jose Luis Otamendi

45
Mimodramak eta ikonoak. JUAN MARI LEKUONA
Felipe Juaristi

BIGARREN ATALA: SAIAKERA

55
Hizkuntza eta pentsakera. TXILLARDEGI
Jon Sudupe

65
O tempora! O mores! EDUARDO GIL BERA
Patziku Perurena

73
Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan. JOXE AZURMENDI
Emilio Lopez Adan

Irudiak:

Caspar David Friedrich
(Greifswald, 1774 - Dresde, 1840)

Filippo Bonanni

Hegats

Literatur aldizkaria

10. zenb. 1994

ARGITARATZAILEA:

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

LEHENDAKARIA:
JOXERRA GARZIA GARMENDIA

ALE HONETAKO KOORDINATZAILEAK:
MAITE GONZALEZ ESNAL / JUAN LUIS ZABALA

BATZORDE ZUZENDARITZA:
AURELIA ARKOTXA, ARANTXA ITURBE, JOSE MARI ITURRALDE, INAZIO MUJIKA, JOSE LUIS OTAMENDI, JUAN LUIS ZABALA.

MAKETAGILEA:
Lamia
Curia, 25-5º
31001 Iruñea

Euskal Idazleen Elkartea
Etxague Jeneralaren kalea, 6-behea-eskubia
20003 DONOSTIA
Tf.: (943) 420010

ISSN: 1130-2445
L.G.: SS- 359/90

BIDERAKO ARRASTOAK (II)

EUSKAL POESIA ETA SAIAKERAKO ZENBAIT LIBURU AZTERGAI

(1968-1993)



SARRERA GISA

Martxoan argitaratutako 8. zenbakiak zabaldutako bideari jarraituz, *Biderako arrastoak* bildu ditugu 10. honetan ere, poesia eta saiakerari lotuta kasu honetan. Azken hogeita bost urteotako euskal narratibari eskainitako ale hura osatzeko egin genuen bezalaxe, zenbait idazlerengana jo dugu oraingoan ere, nork bere gustoko edo intereseko libururen baten berri eman diezagun.

Idazle batzuen liburuek beste idazle batzuen aldetik izan duten harreraren berri ematea da *Biderako arrastoak* izenez bataiatu dugun sail honen asmoa. Kritika akademiko formalaren bidetik jo barik, irudipen eta zirraren bidezidor iradokorretan barnatu nahi izan dugu, gerora begira interesgarriak izan daitezkeen iraganeko arrastoak biltzen.

Bide horretatik lortu dugun emaitza ez da, kasu honetan, narratibaren arloan lortu genuena bezain biribila izan. 8. ale hartan ere ez genuen iritsi –eta ez genuen horrelakorik espero ere– azken urteotako euskal narratiban giltzarri izan diren liburu guzti-guztien komentarioak biltzerik; ale honetan, berriz, hutsik gabeko balizko –ala ezinezko?– biribiltasun aratz horretatik are urrutiago geratu gara, eta askoz ere nabarmenagoak dira geratu zaizkigun hutsuneak. Ez du izenik aipatzen hasteak merezi, ugari eta ezagunegiak direlako.

Nolanahi ere, bi ale hauekin zabaldutako bidea interesgarria delakoan gaude, eta zabalik utzi nahi dugu, orain artean aipatu gabe geratu diren hainbat eta hainbat liburuk ere beren txokoa izan dezaten, eta oraindik parte hartu ez duten hainbat eta hainbat idazlek beren irakurketa kutunen berri eman diezaguten. Ziur gaude ale berri gehiago osa daitezkeela, eta bide horretatik ahaleginean jarraitzeko prest gaude. Izango duzue ahalegin horien berri.



LEHEN ATALA

POESIA

Hogei urte

DANIEL LANDART

Bizitza nola badoan

ITXARO BORDA

LXVII *Violino*



XLIV *Cembalo Verticale*

Luzien ETXEZAHARRETA

* Landart, Daniel. *Hogei urte.* Goiztiri, 1968, Baiona
* Borda, Itxaro. *Bizitza nola badoan.* Maiatz, 1984, Baiona

HOGEI URTEETAKO OPERA PRIMAK: DANIEL LANDART ETA ITXARO BORDAREN LEHEN LIBURUAK

Bi idazleek ez dute maite bata bestearen sahetsean alderatuak aurkezturik gertatzea. Daniel Landarten 'Hogei urte' eta Itxaro Bordaren 'Bizitza nola badoan' bi mundu ezberdin, bi garaien isladatzaile dira eta bi pertsonai zeharo ezberdinen ekoizpen.

Baina distantziak arren eta bi pertsonen arteko loturei behakoak emanez puntu askotan alderatzeko aitzakiak aurki errazak dira. Biak behenafartarrak dira, Daniel Dohoztirin sortua eta Itxaro Oragarren. Biek hogei urterekin idatzi lanak argitaratu zituzten lehen liburu bezala, batak1968.ean eta besteak 1984.ean, bi urte inarrosgarriak zirenetan. Biek poesiari eman zioten leku nagusia eta argiki Iparraldeko euskara idatzi 'klasiko' baten erreferentzietarik zoatzin. Gehi dezagun oraindik urradura baten seinale biziak zirela: dohoztiarrak abertzaletasunaren suak plazaratzen zituen eta oragartarrak gizarte krisia isladatzen zuen bere nortasun indartsuaz.

Nolaz ez aipa ere bi obrek zeukaten ilusio handien sortzeko ahaltasuna. Bi autoreek ondoko urteetan lan nagusiagok agertu zituzten. Jakina da hargatik lehen obrek dituztela maiz udaberriko begi edo su haziek ematen duten esperantza zorabiatzailea.

Ehun urteren zama

«Hogoi urte ditut bete egun, hogoi urte: nahi nuzke ehun!» Horra eskandalagarri zitekeen esaldia 1968.eko abenduaren 11an Baionan inprimitu liburuak zekarrena. Hogoi urte eta etsipenaren marka, lehen poeman berean. «Mendeko haur baten kofesioa» edo «spleen» zerbait hor erraz aurkitu nahiko lukeena behaztopatuko da. Ez zen literatura mailako gogoeta edo biziko plazerretaz asea zitekeen norbaiten aitormena: orduko Ipar Euskal Herriko gazte fededun abertzale baten krisi sakona zen, jazarketa baten deiadarra gogo kontzientziak hainbeste piztu, nahasi eta maiz eritu zituen garai dorpe batena.

Piarres Narbaitz idazlearen sar hitza jaso zuen 64 orrialdeetako liburu horrek. Erraitekoa da liburua «bere sakelatik» dena pagatu zuela Danielek. Kondatu du ere eliz ateetan igandetan saltzen zuela bere liburua bere zorren ordaintzeko eta maiz jendeak uste zuela «elizako obra zerbaiten liburua zela»..

Orduko Iparraldeko euskal kultur ekitaldi askoren antzera liburu honen atarian «elizaren eskua» ikusgarri da beraz. Nolaz gazte fededun batek «elizaren benedizionerik gabe» asmatzen ahalko zukeen liburu baten argitaratzea euskaraz? Funtsean, «zinezko euskaldun gazteak» aipatzen ditu Narbaitz bikario jeneralak, gazteen buruzagitza naturalki hartuz. Ez ote dio ere berak liburuari bere azpititulua eman «Gazte bat guri mintzo»? Azken batean ematen du liburuak 'eredu' zerbaiten nahikaria daukala azalean berean.

Gizon jakintsun boteretsua hargatik guziz fina zen eta begi keinu zerbait egiten zion orduan uholde baten pare jeikitzen eta sutan jarriko zen gazteriari: «Pindar horiek agian piztuko daukute anhitzen bihotzetan aspaldian Euskal Herriak galdegiten zuen sua!», 'agian' hori delarik gure euskalkietan desirazko gauza...

''Herria', 'Gazte' edo 'Etxea' aldizkarietan 'Daniel Arberu' sinatzen zuen dohoztiar gaztea hor bere izen egiazkoarekin agertu zen. Antzerki munduan hargatik sartua zen jadanik, lehen obra nagusiak laster idatziko zituelarik. Sorterria utzirik eta goizik Kolejioa utzirik

aprendiz lanak Baionako inprimategi batean eginak zituen eta Mugerren bizi zen lan berean jarraikiz. Kontaktu askorekin zen barnealdeko taldeekin eta mundu abertzale berriki sortuarekin bat egina zuen baina beti bere kultur eta antzerki arloari jarraikiz. Inprimategietako hainbeste langileen antzera eta kultur ohitura 'europar' baten esparruan 'langile intelektual' agertzen zen.

«Ez naiteke izan gazte, nihun» bere lehen poemako esaldiak militantismoaren dorpea dakar: gerla garaietako gaztetasun galduak, 'seriosegiak' oroitarazten ditu. Baina «peun» ez izateko nahikariak, neskak «leun» izana gatik eta bera «lizun» agertuz, ez ote dira ehun urteren ukaiteko desirak borrokak itxuraldatuko duen mundu berriaren ikusteko nahiaren agerpen?

Liburuaren ikur den testuak, bertso lerro motz arin zaluetan euskaldunen mende dorpe honen laburpen agertzen dira. Nahi duenak profetaren hitza ikusiko du edo iraultzaren nahia etsipenaren zamaren azpian.

Liburuaren garapenak itxura klasiko bat hartzen du ondoren, Dohoztiri bere sorterria edo Mugerre egoitza berriari eskaini bertsoekin. Orduan Iparraldean sartu berria zen 'Euzkadi' kontzeptuak Jerusalem berriaren lilura zuen abertzaleentzat eta Errobi taldeak kanta bilakatu zuen otoitz moduko testua jarri zuen Landartek.

'Herriko bestak', 'Langile baten gogoetak' edo 'Inharen ohantzea' gaur batzuek irriño batekin irakur lezakete gazte zintzo, prestu, umil baten gogoetaldi zaharkitu bezala. Argian emaiten digu orduko giroak zekarren kristautasun baten marka sakona, bestearen errespetuz –izan arren etsaia berdin– bete betea.

Landarten liburua 60ko hamarkadako Iparralde barnealdeko gazte euskaldun 'suharren' eredu zehatza da. Nekazari munduak eta mende bat elizaren lanek hezi gizarte batena. Balore horik dira Iparraldeko abertzaletasunaren oinarrian.

Landarten liburuaren zati horiek pentsarazten dute Jean Etxepare jatsuarrari, urte batzu lehenago zendu zenari. 'Mendekosteko gereziak' bere ipuin liburuan gizarte berdina isladatzen zuen.

Maitasun minez

Liburua XX. mendeko bigarren partean idatzia izateak gazte baten borroka gogo edo etsipenak sor lezakeen jazarketa itsurik ez baldin badu, amodiozko poema ederrek liburuari jantzi ezin ahatzizkoa ematen diote. Mikel Laboak kantatu 'Zure begiek' gaztetasunaren barneko suaren argi berezia identifikatzen du zalantzarik gabe.

Bi poema dira, liburuaren erdian, bata desirazkoa eta bestea etsipenezkoa, 'Bertze batekilan'. Mundu osoan eta dirudienez ziur Euskal Herrian maitasun minek bertso ederrenak sortu dituzte.

Maitasun xume bat agertzen dute maitearen begiei eskaini bost oinetako lerro motz biziek. Maitasunaren agertzeak hor aurreko mendeetan bezala 'andrea' izatearen eskaerarekin bururatu arren, zazpi bertsoek beren grazia atxiki dute. Begia maitasunaren oinarri: horrek mundu arkaiko bati pentsarazten du, mundu arabeen sedukzioari, maitearen begiei hainbeste bertso eder dauzkan kulturari. Garbitasunaren bertsoak direnek nahi ezinbestezkoa jauzarazi dute azkenean, ezkontzarena.

'Bertze batekilan' testuak hamabi oinetako lerroak dauzkate, testu klasikoen 'alexandrinoen' egiturarekin, sei oinetako ebakidura zehatzarekin. Maite galduari zuzendu sei bertsoek, atzerritar maitasun ebaslearen aurkako samintasun biziak mendeku itxura bat daukate. «Hiri ederraren» lilura zoragarriak «etxaldea errekara» bultzatzen duenaren salaketa gogorra da barnean.

Landarten liburua ez da dena leunduraz ikusi behar, ezpata zorrotzak jalgitzen ditu noizbehinka. Horrela beren mintzaira galdu duten euskaldun gazteetaz dio «frantses abere» bilakatu direla. Hitz kondenatzaileak ere baditu «begiak hetsirik» eskuin edo ezker «kurritu nahiago duen» gaztearen aurka.

Berdin obra hau ez dela hainbat 'literatura' nabarituko da liburuaren zati batzu gaur baizik irakurtuko dituenari. 'Bihar' testu harrigarrian katixima zerbaiten antza ageri da, gazte baten 'fedezko akta' agertzen denean. Ohizko Jeltzale baten sineste berdintsuak

azaltzen dira «Euskal Herria egiazki girixtinotzeko» nahiarekin edo «denek Europa altxatzeko» xedearekin.

'Aintzina', azken testuak, liburuaren gogoa dakarke «gizon langileen artean» zangoaren pausatzeko gomendioa agertzean «Lurrekotzat eta Zerukotzat».

1968.eko urte bukaeran plazaratu liburua Iparraldean Herria astekariaren inguruan jarri euskara erabiltzen du egileak. Benafartarra dauka oinarritzat. Irakurt erraza da bestalde, 'herriko euskararen' aukera egin baitu. Bertsoak, poema errimagabeak eta testu laburrak aldizkatzen dira liburuan irakurketa atsegingarria eskainiz.

Daniel Landarten liburua, aurpegia ageriz zetorren batena zen. Ezustean, lan pertsonala egiten zuenak belaunaldi militante oso baten agerpena eskaini zuen. Maitasunez betea zen liburua kar batena zen, kemen handi batena. Literatura esku makil dela zion goraki.

'Bizitza nola badoan' idazte berri baten seinale

1984.eko abuztuaren bukaeran Baionan Maiatz elkarteak plazaratu zuen liburua berritasun, imajinazio, askatasun eta talenduz orratua zen: Itxaro Borda Oragarreko ikasleak idatzi lehen liburua zen, 'Bizitza nola badoan'.

Itxaro Borda azken hamar urte hauetan aldiro eta edonon berritasunaren ikur eta sinonimo bilakatu da. Bere lehen obrak autore handi baten haziak zeuzkan jadanik: hogei urteetan idatzi testu aukeraketa bat zen, 29 poema ziren 'baga', 'biga', 'higa', 'laga', 'boga' eta 'sega'ren artean banatuak.

Ikasle eta euskaltzale kulto baten poemek ahaltasun zabal baten aukera eskaintzen zuten bertso libre, soneto edo egitura aldakorreko lanek. Konformatzen ez zen norbait berehala agertzen zen begi bistara sar hitzean berean, umore fin batekin aitortzen zuenak «poema ergel batzu» izan zituela biziko urrats bakoitzaren lekuko.

80ko hamarkadaren larritasuna gazte batengandikakoa erakus-

XLIV *Cembalo Verticale*

ten zuen ere berehala «gaztaroko zintzotasunaren» lekuko ukan zituen testuen artetik «zenbait poema hautatu zituela» nahiz asko «ekain eguzkitsu desesperatu batean» suaz erre zituen.

Gizarte mota baten aurka argi jarri zen liburu horrekin, ildo luze aberatsaren ataria zela obra hau erakutsiz. Euskara batuaren proposamenek Iparraldean bide egina zuten ordukotz. Batuaren ereduak, euskara moderno batean integratuak, Itxaro Bordaren euskara atseginaren adierazgarri izan da beti.

Euskal astekari edo aldizkarietan argitaratu testuen aukera zen plazaratu. Hamar urte horietan alabaina, Herria, Argia, Herriz Herri, Kemen, Ekaina edo Maiatzen agertuak ziren batzu.

Liburuko bi lehen testuek haurzaroko garaia agertu zuten 'Begiratzen dut gogoan' eta 'Nere herriko eskolan' izenburuekin. Haurtasunetik distantzia erakutsi arren idazle sendikor guziz finaren lumaren marka zeukaten. Eskoletan luzaz irakurtaraziko diren bertso hunkigarriek idazle handi baten sinadura zeukaten.

«Habil amets hain nerea» zion aldiz ondoko poema batek «joanak» haizatu nahiz amets mingarrien arriskuen gatik. Funtsean, liburu osoa desiraren emaitza zela agertzen zuen lerro horrek. Amets ezin obratu etsipen sortzailea, ironia eta distantziaz baizik kontsolagarria. Itxaro Bordaren irudia ia finkatzen zen lehen zati horretan: sendimendu indartsuek egituratua, zauri biziek urratua eta kontsolamendu baten antza zuen umorearekin berriro eta inoiz baino gehiago «etsipenaren jendetasun» erabilia.

'Baga', ametsaren oroimena bazen, 'Biga' sailean, amets hondoratuen agerpena egin zuen, bere burua «antigaia» deklaratu ondoren. Prometeo berriaren apostuaren egiteaz ez zela beldur agertu zuen ere:

Ez dut nik zeruko jainkoaren beldurrik
zeren goizero hango sua ebatsirik
bainoa beti mundu guzia erre nahiz

Hor ikusten zen probokazio nahia, mail gorenekoa, argi dekla-

ratua. Gehitzen zuen poesia klasikoen legeetaz «Ez dut nik hartaz axolarik». 'Belaunaldi galduaren' nortasuna erreibindikatzen zuen ere, «iraultza sustatzeko partez», ziolarik «maitasunez mintzatuko» zela. Gaineratzen zion «Babilon hiriaren indar egunetan» bere «palazioko dedal ilunetan aurkitu «zorabi hezea» baina «hutsaren erroan» zegoena. Geroztikako testuetan maiz erreinbidikatu zuen 'desesperantzaren' egiturak hor agertu zituen.

Oragarreko idazleak 'Higa' kapituluan barnatu zuen bere gaia, Euskal Herriko aipamenekin. Betidanik etsaitzat ukan dituen «Gizon jarriak» hor etsai argi deklaratu zituen «kurutze edo igitaia eskuan sorturik direnak».

«Laga» eta «Boga» zatietan sendimenduzko oharpen ugari dauzka maitasun, memoria edo ametsaz, testu gozoak gora irakurtzekoak eskainiz. 'Huts sentimental' testuak fama berezia ukan zuen Txomin Hegi eta Peio Serbiellek moldatu zuten 'Urrakoa' ikusgarriaren gatik. Fado baten gustu gazi eta kiratsa dauka aipatzean «ez da neregatikan untzirik partitzen». Izkutatzen ahal ez zituen bakartasunaren zauri mingarriak azalera berriro bazetozen beste hainbat idatzietan bezala.

'Sega' azken partean, bukaerako gorde etsipen mailako testuak azaltzen ditu. 'Koplak' testuan hainbeste ezin bizitzekoei aurre egiteko jarrera batzu aipatzen zituen: «Tabernako mahaiean gelditzea zalantzan, dudaren latza zainean eta besoak balantzan». 'Mila solas inutil' beste bide bat erakusten zuten autoreak bere burua «den bezala agertzeko»: «behar bada ez du balio kateak haustea kario» eta beraz «solas inutilak» zeuzkan ordainez.

Zorionez 'solas inutil' horik irakurlearen atseginaren hazteko grazia bazuten. Bere 1981.ean idatzi 'Testamenduan' bere «waterman luma bakarrik» daukan aberastasuntzat agertzen baitu. Zer eskatu gehiagokorik idazle bati? Azken testuak 'Kaskezur'ek halako 'finis mundi' apokaliptikoa eta morbidoa agertu arren Barbussen 'Ifernua' testuko deskribapen beldurgarria eskaini ez ote da azken batean Xabier Lete baten 'Sinisten dut' baten bertsio berezia?



Betiereko bizia lurreko «suge nagi» edo «zizare» edo «mamu txarrek» definitzen badute ere ez al du Itxaro Bordak agertzen berriro hitzaren jabe dena suaren jabe zen Prometeo baino indartsuagoa dela?

'Bizitza nola badoan' XX. mendeko euskal literaturaren liburu inportanteetarik da. Iparraldeko idazle jeinuz bete baten sorrera sinatu zuen. Literaturan jazarketa molde baten lantzea iragarri zuen, jendearen errespetuz betea baina botere eredu sortzaile eta askatsunaren murrizle guzien aurkako etsai zena.

Itxaro Bordaren gogoeta poetikoaren zerbitzari zen euskara guziz landu eta zehatza. Herriko hitz jori aberatsak erabiliz, euskalkien batasun natural bat eskainiz, euskara batuarentzat eredugarri zen obra idazten hasi zen. Idazle eskolatua, kultura handikoa, kanpoko literatura askoren sintesiaren egilea elkartzen zen Euskal Herri 'sakona' sendi eta bizi zuenaren baitan. Baldintza hoberenak bilduak ziren obra premiazko bat bidean jar zedien.

Hostoak. Gaia eta gau-aldaketak

TERE IRASTORTZA

Amaia ITURBIDE

* Irastortza, Tere. *Hostoak. Gaia eta gau-aldaketak.* Caja de Ahorros Municipal, 1983, Bilbo

TXIKITASUNAK EGITEN ETA MOLDATZEN GAITUENEAN

Komentatzera noan liburuak *Hostoak. Gaia eta gau-aldaketak* du izena T. Irastorzaren sinadurapean. Berez eta egiturari buruz, liburu batean bi poema-liburu bilduta daudela argitu behar da, bata *Hostoak* izenburupean 1982ean Bilbo Aurrezki-Kutxak eraturiko R.M. Azkue olerki-lehiaketan lehen saria eskuratu zuena, eta bestea *Gaia eta gau-aldaketak* deritzaiona 1981ean lehen aipamen berezia lortu zuena. Baina tonuari eta mamiari dagokienez, liburu bakartzat jo daitezte, poemario batetik bestera ez bait da jauzi nabarmenik ematen, dena hasieratik bukaeraraino hari berberaz josita dagoelako.

Poetek kanpoan egina dagoen errealitatea ez zaielako atsegina gertatzen, besteak beste, bidegabea eta ulertezina delako erabakitzen dute bere unibertsoak eraikitzea. Eta nahiz poeta guztien etxeak elkarren ondoan jartzen diren, hizketaldi batean bezala, etxe bakoitzak bere ezaugarriak gordeko eta zorroztuko ditu. Etxe bakoitzak bere nortasun propioa du, bere sinadura. Tere Irastorzaren etxeko sutondoa sentiberatasuna da, sentiberatasun gaztea, gaztearoak opatzen duena, eta agian horrexegatik zertxobait bigunegia. Eta nik ere sentimendurik bako poesiarik ez dudalako gustoko, hau da, teknika eta artifizioetan soilik oinarritutakoa, patxadaz paseiatzen nabil berarentzat ez ezik irakurlearentzat ere sortu dituen bere hitzen artean, hitzak behatz puntez ukitzen ditudan heinean haiek ere ukitzen bait naute, baina ez didate minik egiten, alderantziz, kontsolatzen naute. Tere Irastorzak minaz, zalantzaz eta denboraz brodatu duen soinekoa ulertzen dut. Eta ulertzen dudalako bere barruan eroso mugitzen naiz eta bere etxeko egongelan erdi etzan naiz ideia batzuk askatu asmoz. Aipatu dudan aurrekoari atxikita,

sentiberatasuna ez dela gaira mugatzen esan behar da, mamiari bezala azalari ere bait deutso. Horrela, hitzei erantsitako adjetiboak, zentzumenei egokitutako adjetiboak dira; hitzen arteko kidetasuna sentibera; irudien jarioa sentimenduzkoa. Baina baita ere sentiberak bere poesiarako aukeratu dituen gauzak: gauza txikiak.

Txikitasunak egiten gaituenean, egiten eta moldatzen gaituenean ikuspegia berritzen zaigu, lehen garrantzirik ez zeukaten gauzak hartzen hasten dira, ziluetatzen, argitasunaz puzten. Ez da kasualitatea *Hostoak. Gaia eta gau-aldaketak*-en zita bakar bat agertzea: *Cuando murió el poeta se quedaron / tristes todas las cosas pequeñitas que él cuidaba* (D. Alonso). Errreferentzi-puntu honetan ikusten da zertan edo zer gauzetan ipini nahi duen azentoa poema-liburu honen egileak. Dámaso Alonsoren aipamenari zerbait erantsi nahi nioke, ordea. Poetak direla gauzak txiki bihurtzen dituztenak, txiki eta maitekor, jostailu eta pentsabide. Unibertsoa gauza txikiz dekoratzen dute eta beharrezko bilakatzen, magoak, ametsen eta ilusioen kreatzaileak bailiran. Txikitasunak giroa sortzen du, ordu bildua eta laxoa, abegi oneko espazioa, multiplikatzeko bideari leihoak eta ateak zabaltzen dizkio. Harrigarria da, bestalde, euskal poetengan zein hedatua dagoen konzepto hau, eta ez dut uste, orain hain modan dagoen emakumea eta literaturaren gaiari dagokion zerbait denik, baizik eta geografiari lotua. Azken finean, herri txiki baten, Euskal Herriaren seme-alabak gara.

Txikitasunaren erreinutik egunerokora urrats bat egin dezakegu. Egunerokoa egun-gauean (zein espazio laburra!) gertatzen denaz eta dagoenaz osatuta dago, inguru arrunt eta hurbilaz. Eta hemen bai honetaratuko nukeela emakumea eta literaturarena, zeren emakumeok urruntasunari buruz baino gehiago hurbiltasunari buruz, hurbil dauzkagun gauzez eta era zuzenean hitz egiteko joera dugu. Tere Irastorzaren poesian gaurko objetu arruntak desfilatzen ikusiko ditugu, hala nola, telebista, diskoa, boligrafoa... tonu intimista landu baten esku-laguntzaz. Egunerokotasunaren zati bat den unea poesiaren inspiratzailea da (*Aurkituko dugu / instante berririk / biharren batetan,* 47 orr.).

Joku zentzuaren agerpen ugaria da beste puntu garrantzitsu bat. Fonemen arteko hoskidetasunean sortutako hitz-jokoak aurki ditzakegu, hitz baten barrukoak (sinonimia hustiratuz), esaldien artekoak (azalez zer ikusirik ez duten esaldiak konparazio surrealisten bidez paraleloki jartzen ditu), irudien bidezkoak (kontrasteak direla, simetria dela...) eta abar. Jokuaren tratamendu honek surrealismoarekin harreman estuak ditu, irudimena dantzan jartzeko T. Irastorzak darabilen surrealismo jariotsu batekin, bere poesia mugitzen duen surrealismo batekin. Gau-egunak egin eta desegiten diren bezala, hitzak eta deshitzak ehotzen eta deshotzen ditu, zentzutzen eta deszentzutzen. Poema hauetan zehar entzun daitekeen hiztegia aberatsa da; egileak hiztegia zaindua izan dadin egin duen ahalegina lerrootara ekartzekoa da. Lehenengoz, poemagintzan ez ohizkoak diren hitzak (astzensorea, pasonibela, autobusa...), edo behintzat, ez hain ohizkoak, tartekatzen ditu, eta horrek kontrastasun-sensazioa demaio poemari, bultzada eta berritasuna. Hitz-mota hauek poesian beti erabili izan direnen parean kokatzen ditu, nolabaiteko oreka erdietsiz. Bigarrenez, hitz zentzuz zailtxoak direnak edo zaizkigunak, tokian tokikoegiak direlako edo aintzinakoak, ez ditu tropelka jartzen, baizik eta banaka, hitzei arnasa har dezaten uzten die, bi gauzatxo jadetsiz: irakurketa erraztea eta poemaren giroa lasaiagoa izatea. Eta hirugarrenez, hitzak enfatizatzen daki, hitzari berez dagokion kualitatea edo ez kualitatea azpimarratuz.

Jorratzen dituen gaiei dagokienez, poesiaren historian gaindi beti erabili izan direnak dira: amodioa, heriotza, denboraren igarotzea..., baina nagusienak bi dira nire iduriko: ausentzia, hots, presentzia-eza, eta desesperantza, hots, esperantza-eza. Bere lehenengo poema-liburuak, kritika-literatur saria eskuratu zuenak, *Gabeziak* zuen izena. *Hostoak. Gaia eta gau-aldaketak*-en «des» aurrizkiz osotutako hitzak nahi adina daude. Baina zer da ausentzia? Zerbait haundia, mugagabea (*Bai hatzamar haundiak dituela / zure ausentziak / eta hortz ertz azkarrak! Bai ahula nire bizkarra, / ttipia gorputza / zure ausentzia gordetzean,* 21 orr.), (*Nork beteko du zure hutsunea,* 51 orr.), bakardadea ere bada (*bakarrik bakartateak / zure*

ausentzian, / bizia hila, 27 orr.), pobrezia (*Poesia zure begirada, pobrezia*, 131 orr.), galdera ere bai, galdera luzea eta zalantza desesperantzak tristura dakar. Poemok tristeak dira, tristeziaz malkotuak daude (*poeta triste naizen partetik, / poeta*, 133 orr.). Mindura behin baino gehiagotan ekartzen digu gogora, horrela limoiaren garraztasunaren aipua errepikatuko da (*ilargiaren limoitasun garratzak,* 17 orr. eta *limoi garratzez kupel bihurtu duzu / nire sabela*, 29 orr.). Izan ere, Tere Irastorzaren poemek ez dute ihesbiderik edo irtenbiderik bilatzen, ez dute larrialdirik sortzen, gogo-aldartearen egoerak deskribatzea, adieraztea dute helburu.

Bestealdetik, kontraportadan irakurlearen paperaz esaten duenari interesgarri deritzot, zeren ni ere gero eta konbentzituago nago irakurlearen garrantzia haundia dela, liburuaren hartzaile aktiboak edo T. Irastorzaren esanetan *egile edo desegile* horiek literaturgintzan, literaturgintzaren prozesoan betetzen duten funtzioa oso kontutan hartu beharrekoa dela. Irakurleak ere egiten bait ditu liburuak.

Balizko erroten erresuma

KOLDO IZAGIRRE

Xabier MENDIGUREN ELIZEGI

* Izagirre, Koldo. *Balizko erroten erresuma*. Susa, 1989, Donostia

DINAMITA BUSTIAREN ARRISKUAK

Aitorpen batekin hasi behar: ni ez naiz poesizaleegia, poemabilduma gutxitxo irakurri dut aspaldi honetan, gero eta gutxiago egia esan, baina bada bat, orain lau urte irakurriagatik aldian-aldian gogora datorkidana, zenbait hitz, esaldi eta lerro buruan iltzaturik utzi dizkidana eta berriz ere irakurtzen dudan aldiro erraiak inarrosten dizkidana: *Balizko erroten erresuma.*

Gaztetxo nintzela, ia-ia umegorri, Bécquer-en errimak gustatu zitzaizkidan asko, nerabe askori bezala; gero, artean gazteegi, Arestiren harriak txunditu ninduen, gutariko gehientsuenak legez; haien arrastoa baino sakonagoa utzi du neregan Izagirreren liburu eder bezain mingarri, oinazeraino eder honek.

Zer ote du ba horren berezi egiten duena? Zergatik hunkitzen ote dit barrena? Zinez, ez dut uste egilearekiko adiskidetasunak axola handirik duenik horretan, zenbait poema hobeto ulertzen lagundu badit ere. Ondoren datozenak, galdera horiei erantzuteko ahalegin bat dira, senez eta sentimenduz ikaragarria hauteman dudan obra berealdikoa zergatik den erakusteko saioa[1]. Saio alferra beharbada, kritikarien ekin guztiak gorabehera *feeling* esanezinezko baten kontua baita azken batean poesia, balizko erroten erresuma.

Hitzaurre batek eta berrogei poemak osatzen dute liburua. Hitzaurrea bera ere poema bat da, bildumari sarrerarakoa egiteaz gainera doinua eta tonua ematen dizkiona. Bokatiboa da idazkera, guk denok osatzen dugun *zuek* bati mintzo zaio –eta *gu* hori ere ez da erretorikoa, gutxi-asko hauxe irakur dezakezuen multzo beretsuak osatzen baitugu, lehen une batean behintzat–, elkarrizketan ari dela adierazteko edo, gugandik erantzuna, teknikoki *feed-back* esaten zaiona espero duela.

1. Liburu honi buruzko nere usteak testuinguru zabalago batean kokatzeko, ikus "Gure literatura garaikidea" in *Jakin* 76 (1993)

Hitzaurre-poema horretan bertan ageri dira, halaber, Izagirreren azken aldiko idazlan guztietan eta bereziki bilduma honetan topatuko ditugun ezaugarri nagusietako batzuk: bere aurreko lanekiko aipamen eta erreferentzia *Nire bekatuak ez du mea culparik*; beti paradoxarekin jolastea, irakurleak espero ez duena ematea, harritzea, gauzen itxuratik harago joateko eskea *Erdaldun nazazue piska bat*; inongo lotsarik eta disimulurik gabe gure herri-izateaz, bizi nahi eta hilzori luzean iraun beharraz jardutea *Nik ez dut euskal herria euskararen gain finkatu nahi*, nahiz eta gai horiek ez egon modan eta ez izan *poetikotzat*jo ohi direnetarik; orain esan dudanari loturik, korrontearen kontra ibiltzea, ausart, jorratutako ildotik bezain urrun domina eta merituetatik *ez noa haize-alde*; eta, azkenik, umore zakar antxa imitaezina, inoiz herdoiltzen ez zaion ironiaren ezpata zorrotza *Erdaldun nazazue piska bat mesedez / Erdaren San Bartolome Gauera gonbidatu baino lehen.*

Solaskidearen markoa eta tonua eman dizkigu hitzaurre-poemak, baina ez liburuaren gai zentrala. Ez da gehiegi itxaron behar ordea. Liburuak dituen hamabi ataletako lehena, *Izan nintzen poeta hari lehen gutuna*, zabaldu ahala, estreinako poema, bere aurreko poesibide erromantiko erosoei eraso, autokritika moduko parodia egin ondoren, honelaxe amaitzen da:

> *Ikasia behar hengoen hitzak ez lukeela hitzetan loratu behar*
> *Poesia balizko erroten erresuma izanik ere.*

Zalantzarik txipiena gera ez dadin, liburua ixten duen poema ere, *Izan nintzen poeta hari azken mehatxua* ataleko azkena, honelaxe bukatzen da:

> *Debekatuak dauzkagu arma guztiak baina*
> *Hitzak ez du hitzetan loratu behar*

Hitza hitzetan ez geratze hori da, hain zuzen ere, liburuaren motorra, aurrera eragiten dion kontraesana. Bestelako poesia egin nahi du (*ez nuen berehalakoan ikasi / Eskua egunero mozten*), esana ez dagoen zerbait esan, kostata ere arriskatu (*Ez haiz gauza gezurra bezain eder esateko egia*), bizitzarekin lotu idazte-lana (*Kaleak dira*

liburu honen orriak). Kontraesan izate hori jasotzen du izenburuak berak ere, eta balizko errota horren inguruan eratzen du poetak indar handiko sinbologia aberatsa, Gandiagak txakolinarena bota zuenez geroztik Euskal Herriarentzat asmatu den erakargarriena.

Bada beste sinbolo-sail bat ere, liburu osoan zehar taupaka eta hegaka: beleen ingurukoa. Ele-bele luma zurikoen elurtea eta erauntsia. Modu prosaikoan esanda: hizkuntzaren saldukeria, bertan-goxoen eskapismoa, zapaltzaileen ideologi erasoa, hedabideen zaborra, letretako harraparien lausenguak, dekoratzaile goranahien apainketa, neurri batean edo bestean ia denok blaitzen gaituen oilobusti izatea... Aro gogorra noski lirikarentzat, sasoi latza mundu hobe baten aldaketan sinetsi nahi dutenentzat. Nere hitzak ziren aurreko lardaskeria horiek, ele, bele eta luma zuriekin Izagirrek asmatzen dituenak edozein antologiatan jartzekoak baitira, beleen balada eta beste, hain dira eta biribil eta jenialak, hain abilki baitarabil satiraren pozoi gozo eta garratza...

Atal guztiak banan-banan komentatzerik ez badugu ere, bada bat bere iruzkin bereizirik gabe utzi ezin duguna: *Errotari zaharren oroitarriak* deritzan zatiak ez estiloz, ez mamiz ez du liburuaren batasuna hausten, baina hiru euskal poetaren bindikazio antzeko bat egiten da bertan: *Lauaxetaren betaurrekoak*, *Lizardiren mendia* eta *Arestiren mailuma*. Bindikazio hitza ez da egokiegia, zehatzago esanda, errotari zahar horietako bakoitzaren berrirakurketa pertsonalean hiru zeregin biltzen baititu gutxienez: aitorpena eta losintxarik gabeko gorazarrea; poeta bien munduen uztarketa bersortzailea; eta azkenik kontu-garbiketa, gupida gabekoa irudi lezakeen kitapena. Aspaldi honetako esperimentu poetiko liluragarrienetakoak lortu ditu horrela, irakurri ezik azal ezin daitekeena; Lizardirenek, adibidez, egundoko zirrara eragin didate neri behintzat.

Lilurak lilura, ordea, Izagirrek ihes egiten dio ia beti bere etorri txundigarriari; abileziari mugak jartzen dizkio, mihiari traba, etorriari hesia, eskuari langa (*Egunero moztu behar duk hitzbidean*), hitzjoko, ezusteko irudi, elkarketa polit eta gainerako berba-festa ohizkoetan ez erortzeko. Erretolikatik ihesi, esaldi enuntziatibo

soilak pilatzen ditu elkarren gainka, hitzak bere soilean utziz, marmola zizelkada pare batez bere biluztasun guztizkoan uzteko, ohizkoa ez den beste armonia batera iristeko (*Egia edertu ere egin behar baita / Gezurra bezain eder*)

Esaldi horiek sententzia itxura hartzen dute sarritan, berealdiko perpaus ahaltsuak jaurtitzen ditu harriak legez (*Noizbait ikasi duk zerrien negarra / Janak isiltzen duela*). Eta egileak hau oso gogoko izango ez duen arren, profeta-kutsua ematen diote halakoek tarteka (*Ez duzu hau aberririk eztiena*), inongo mesiaren etorrera iragartzen ez duen eremutarraren jarduna (*Une batetik bestean hasiko da sarraskia*).

Ez da hala ere basormortuko oihulari bakartia. Solidaritatearen besoa luzatzen du etengabe, *maitasun konsigna debekatua* bilatzen, nahiz eta *maitasunak malura dakar.* Malura hori, sufrimendu hori mila modutan ageri da liburuan zehar, izateko eta sentitzeko era bakarra bilakatu arte (*Sufritzen dakigunak bakarrik bizi gara*). Maila abstraktotik oso konkretuetara ere eramaten ditu aldian-aldian sufrimenduaren adibideak: deserriaren mina geure baitan sentitzeaz gain (*nire herrian nago atzerrian nago nire herrian*), larrutan pairatzen dute *Vasco izen propioa den hiri lumatuetan*; han *Non harresiak zikoinek iragaiten dituzten, irakur ezazue torturatuen esperantoa*; askok ahaztua izango dute Mikel Lopetegi, Urkizuko urkatua, baina haren eta gu denon oroitzapena itzalitakoan ere oiloipurdia jarriko zaio hemengo zenbait poema irakurtzen dituen edonori (Sarrionandiaren kasuan bezala, zenbaitek besterik uste duen arren kartzelako gaia ez baita zoritxarrez koiunturala ezpada guztiz eternala).

Oker dabil beraz, liburuaren irakurketa politikoa egin nahi duena. Euskal borrokaren epitafiorik handi eta ederrena sortu arren (eta nahi gabe aterako zitzaion epitafioa), dimentsio kolektibotik adina du ziurrenik obsesio pertsonaletik heriotzaren agerpen errepikatuak, eta poema batzuek logika arruntaren mugaz harago iragandako espiak klabez igorritako mezuak badirudite ere, kriptikoxeagoa da tarteka, eta etengabea du formaren bilaketa, inoiz

erabat atzeman ezin litekeena (*Oraindik ez dut hitz hori aurkitu*). Goldea ibilitako bidetik urrundu nahi horren beste adibide batzuk dira, esaterako, esaera zaharrak hankazgoratzea (*Zuhaitz eroriari orok agur, Orhiko txoriak Orhi gorroto*) edo behin eta berriz darabilen teknika, alegia, hitz bat aurreko edo atzeko esaldiarekin irakurtzeko moduan uztea, hartara esanahi-aniztasuna emanez irakurleari (adibide soil bat: *Inor ez dadin altxa bizirik / Iraun genuenon bihotzaren eske: bizirik* hitza ezberdin ulertzen da, aurreko nahiz atzekoarekin lotuta). Baina ez da forma hutsa bilaketaren helburua: ez dezagun ahaztu literatura lore-joko eta aspertu jantzien denboraemangarri bihurtzen ari den garaian zerbait berria esateko ahalegin etsi baina ez itsuan dabilela Izagirre. Kontrazalean egileak berak diosku: *ur meheegiak datozela entzunen duzu* [...] *Iturriak aspaldian agortu zirenez ez omen dago indarrik errotarria mugitzeko. Milaka aldiz ehotutako hitzek ezin dutela ezer berririk eman. Eta orduan Balizkotasuna aldarrikatu beharko duzu* [...] *Eta zeuk sortu beharko dituzu iturriak. Zeu* hori poeta da eta gu denok gara, hasieran esan bezala irakurlearen partaidetza eta ekina eskatzen baitigu liburuak

Honengatik guztiagatik, aparteko liburua duzula esango nizuke, irakurle. Tintaz ezezik, geure isurkai mota guztiekin idatzia (*gure gorputzak eskaintzen dizkiogu idazteari* esango du halako batean), azken hamabost urteotako diskurtso orijinal eta indartsuena nere uste apalean, eta horregatik, gerra osteko poesiaren historian Salbatore Mitxelena, Jon Mirande, Gabriel Aresti eta Bernardo Atxagaren ondoko lekua betetzen duena ekarpen berrien garraioan.

Kontu bat geratzen zaigu hala ere argitzeko: ea hitza hitza ez den beste ezertan loratu ote den. Zaila dugu jakiten. Liburu hau kalera atera bezain laster norbaitek ziplo bota zuen dinamita hutsa zela. Laster asko beste batek arrapostu, dinamita bai baina bustia zela, paperezkoa alegia. Egia, noski, baina hori esan zuenak ez bide zekien dinamista bustiak ez duela indarra galtzen, kontrolagaitza bihurtzen bada ere. Beraz, auskalo halako batean eztanda egingo ote duen.

Dordokak eta Elurrak

Iñigo Aranbarri

Jose Luis OTAMENDI

* Aranbarri, Iñigo. *Dordokak eta Elurrak.* Susa, 1989, Donostia

DORDOKAK ELURRETAN

«Zergatik beldurra izan heriotzari
Herioak ez dio inori beldur»
B. Moloise

1. Argiketa paperak memoria bezala ez dira gertaera eta sentimentu elkarri lotuak baino. Denboraren etorriak borobildu, lausotu, edo zorroztu egin ditzakeenak. Ezina zait *Dordokak eta Elurrak*-i nahibeste alderditatik oratzea, ez naiz gauza, eta hain da trokazulo zabala. Kontuak kontu, liburu hau zer esatera datorren azaltzen saiatuko naiz hemen. Konfesio goiztiarrak –torturaren igurtzirik gabekoak– ematen duen arinduarekin guritu ditzagun hortik eta hemendik bildutakoak.

Hau baino lehen poeta azaldu zitzaigun Aranbarri «Jonas Poisson» izeneko liburuan. Gutxik bezala bilduma baino poesia liburua burutzeko lain ezpalarekin gainera. Ez da eboluzioaren katea berehalakoan erratzen: arraina lehen, narraztia gero. Ematen du grina berdinak dantzatu duela orain artekoan Aranbarriren ihardun poetikoa. Estrainekoan nola bigarren liburuan balore humano berdinen defentsa ageri da, motibo asko berritu egiten da *Dordokak eta Elurrak*-en (gutunak, animaliak...), ardatz narratibo bati lotuak irakur litezke, elkarren segida moduan ere bai neurri batean. Nago alde nagusia planteamentuaren erradikaltasunean dagoela, espresabideen doitasun eta arraildubako zehatzean. Harunzkaldekoan ironiak kilipa gintzakeen, honakoan larriak arnasa berotzen digu. Testamentu baten aurrean gara, urte sasoien segida errea gorpuztutako memoria eta ahaztearen lehia. Horrezaz gain baina, *Dordokak eta Elurrak* printzipio aitortze poetikoa da, emaitza ezohizko eta, neretzat, ederra. Biblia txipi bat, apokalipza eta kantiken kantikaz.

Modu batera Benjamin Moloise militante hegoafrikarra jo liteke protagonista, ez ahaztu Moloise poeta dela, bere oinaze, heriotza eta piztuera poeta izatearekin lotuta doaz hertsiki. Bestera, memoria jokoan duen kolektiboa da protagonista. Ez dira bereizten erraz. Baina ezin konforma gintezke irakurpide motz batekin. Poesiak bizia du zorretan, eusteko adorea du zorretan, esparru kolektiboa da segurrik. Beti da alegato bortitza.

Horra heltzeko eklektizismoaren bidetik jo du Aranbarrik itxura aldetik, eduki aldetik aldiz muzin egiten dio ezein anbiguotasun lorratzi. Ez dugu ukatuko liburu zaila denik: elurraren metaforak zientoka dira itxaropen behartuarenak hainbeste. Hermetismoaren baitan gordetzen dena aratza da. Hautapen formalean dago gakoa, zailtasuna dakarrena hizkera poetiko propial batez jabetzeko ekina da. Askok, Mitxelenak, Kortazarrek esana dute lehenago. Hortik liburuaren bitxia. Ezohizko batura dago bertan, modernotasun osteko joera formalak eta eman zaharragoko elkartasun printzipio-ekiko atxikimenduaren artean. Besteren aipu eta erreferentzia usuak sormenerako bide dira, ez petatxu joste distirantetarako; aurrera jo nahi da, hor dago aldea, trinkotasun horrek erakusten digu zein urrun dabilen fragmentarismo haizeak menera errazetarik. Mundu batek hasi eta buka egiten du *Dordokak eta Elurrak*-en, sartzen denak jakin badaki mundualdi horrek bide-sari karua duena demandan. Inork gogoan izango du agian literaturaren autonomiarena. Baliteke gehiegi eskatzea ere izatea gauden gaudenean. Komunikazioa giharrak erasateko neurriraino behartu da, horregatik zaintiratuak. Paleolitoko harripotorrek betetzen digute bihotza.

2. Europan nahiz etxean izan ditugun joera estetiko eraginkorrenek utzi dute seinalea hemen. Espresionismoarenganakoa ez da mirespen hutsa, hein handi batean hari zor diogu idazkera bitarteko errealitatea dinamitatzeko amorrua. Soka beretik surrealismoaren uretara isuriko gara, eta umoagoa da hizpide dugun delitua. *Dor-*

dokak eta Elurrak-en surrealismoaren koartada aise balia liteke, oker dabil ordea hermetismo lazorik zuritzeko darabilena; ismoetan nabariena izango da lerrootan, beti ere konzeptuei motzean lotua, errazkeriari propio itzuri egiten diona. Aitortzen diogu maitasunari ulertu ezinetik duena, baina horrek ez digu ematen barrugabetua behar duela esateko estakururik, sentimentuak ditu gordean, nondikak, norak.

Aranbarriren poesian sintaxia azpikozgora eta lehertua ere kausituko dugu, sinbolo asko sarritan kuku eginez azalduko zaizkigunak, metafora harrigarriak ederrean, sinestesia eta hiperboleak, lexiko hautapen jasoa... Ez dugu kritiko bihurtzeko beste ikasi. Ez dut ez polborarik asmatu: mugak haustera egiten duena izanik ere, euskal poesia garaikidea baino ez da.

Lotsarik galdu ez duen idazlea da Aranbarri, eskuzabal eskaintzen zaigun durundio nahi du bere hitzak, ez da nitasunaren azpildurak harrotzen nekatuko nahiz eta «ni»a hor egon, besteren ahotan jarria, izenordain eta paraje urrunagoetan gorde-antzean inoiz. Ispilu baino ikustailu den poesia, bere ederrean etsitzeko sortua ez dena behintzat. Lau haizeetarik egurra datorkigun arren ez gaitu derrotaren erotikak liluratzen. Gehienetan zerbait narratzen abiatzen dira poemak. Negua lobelarra da, ahazmena, mendearen oldarra, kartzela, denbora; denbora, eustea, adiskidetasuna, plazerra, idaztea eta besterekin edo besterena sufritzea dordoken suertea. Deskripzioak dinamikoak dira.

Dordoken eta elurren oinarrizko sinbologia ezezik bada munta handiko elementu franko ordea. Geografia europarraren nagusigoa –gizaldiaren hasierako Erteuropa–, bestiario taxidermiko eta gehienetan defentsibo baten eraketa, elurraren, ahazmenaren, urtzearen, samurtasunaren eta oroitze setatiaren metafora nola sinbolo ugariak. Ez dago betegarririk, doitasuna mingarria da, keinuak anitz eta eusgarriak. Poeta aurretik dabil, beti hoska ari mintzen gaituzten leloez. Esperantza derriortuaren aitzi tonua bezala mudatzen dira pertsonaiak: gutunak idazten dituztenak inoiz margolariak dira eta

inoiz kondenatua, poema batzuetan doinu bixi jauzkariak eta hurrena elezaharren moldean emandako mendeku eta jazarpenezko ipuin harrigarriak aurkitzen ditugu. Eskaintzak, aipuak, erreferentzia literarioak eta plastikari dagozkionak koska bat estutzera datoz, tesi nagusia indartzera. Irudi baten pindarrak poema osoa argi liezaguke, prosazko atalak sufrimentuaren aktak begitantzen zaizkigu; nahi den adarrari helduta ere gozatzeko aukera bat badago beti. Iritsi ala ez gutunak trabesa dira kamino bazterrean harriak bezala, izan badirela dakigulako loa kamusten digutenak, begibista motzeko Kupido arloteak gara, horregatik edo egin bide gaituzte banpiro.

Kaspar Hauserrekin nahi dugu hanka egin puten beso artera negutik, edo bapatean berriz ez garela hilko sinesten dugu. Koloreak garrantzitsuak dira, zenbakiak ere bai, koadroak memoriaren tresabi dira eta bakardadearenak. Apoarmatuen nominan sartu ditugu Bosch, Brueghel Zaharra, Dürer, Munch, Giacometti... Eta eroak. Eta maite ditugun idazle-dordokak.

3. Bihotza espazio kolektiboa da, hizkuntza eta bizitza bezala. Hieronimus Bosch-ek arima zapuztuak eta zoomorfoak margotzen ditu eusteko. Banpirismo molde bat da poesia, biziko bada lagun hurkoa kutsatu behar du, klubean sartzeak bakerikbako hilezkortasuna esan nahi du. Baina aurrera nahi dugu irudimenaren, hitzaren indarrarekin, eta munduak ez du gurekin ibili gura. Irenduak, ezinduak gaude neguaren kontra. Maitasuna ageri da, badakigu amodioaren ostean bakartzera goazena atzera, hortxe bilatzen dugu ordea adorea. Askotan maitasunean unean unekoa gozatu baino oritzapen aurreratzen, aurrezten ari garelakoa barruntatzen dugu; gerora baliatzeko kemena metatzen.

Behin-behinekoak dira garaipenak, bizitza apelaezina. Udazkenean neguaren alde jokatzen du denborak, ahazmenari amore emateko tentatzen gaitu, libertatea zabal eta franko eskaintzen zaigu

baina etsipenaren morroi erabil dezagun. Haurtzaroa galtzera eman behar da elurtearen zurrunbiloan murgilean sartzeko. Zuloak, segadak, traizioak zailak dira ikusten. Nostalgiak hilduratu egiten gaitu, ez da memoriaren alderdiko. Jaioko direla berriak? Jakina, eta jaiotako inori ez diogu utziko guztiz berri izaten. Latza da burruka, eroetxea dakar dordokentzat, isolamentua, espetxea, deserria, hondamenaren laginak. Hala ere, tartean tartean eskas ditugunen gutunak jasoko ditugu eta kantak eskaintzen dizkiegu ostatuean. Geografia kolektibo horren bindikatze errimeaz ezin duten hainbeste eta hainbesteri gurekin direla dakarkiegu gogora. Gotor izateko manerak asko dira, eta dordokak, funtsean, itxaropen zaurituak.

(Dordokak entzuten dira gela honetan / Basurde urdin zaurituak, tukanak / Biblioteka zaharreko azken argiak / Prahatik inoiz / Zure gutunak datorren neguan joanen naiz / Ordea joan dira neguak, eta gutunak / Eta botila baten begitik oroitzea da / Gelditzen zaidan ohe bakarra / Bezperako soinekoz, ibisak kausi nahian / Lagun hilak ditut gogoan zurekin nagoenean)

Urrian gogor jotzen gaitu lehenbiziko hotzak. Elurrak fidakaitz bilakatzen gaitu, terneziaren defizitak ugertzen barrena. Elkortasuna urkamendia jasotzen ari da. Noizbehinka arnasa hartzeko pausagune bat jartzen digu eskura liburuak, noraino iritsi edo galdu garen gogoratzekoa; ohi baino hizkera xeheagoan idazten digu preso dagoen urkagaiak, oso urrunetik beti. Guritik mehera eta mehetik gurira ibiltze horretan erasoek haina garrantzi dute itxaropena berotzera datozen lirismozko eztenkadek.

Bihotzera doa negua, beltzera, ahazmenaren oturuntzan heriotzaz erditzen gara, amapolak –lo belarrak– loratzen dira den-denok daukagun aluan. Idaztea eta irudimena dateke elurteak harrapatuentzat itxaropen eta libertatea. Antza denez maite dugun guztia desegin artean bakerik ez du neguak. Zaila da hitzekin adieraztea.

Defentsarako armak ditugu bihotzeko isilpoltsan gerizatuak dauzkagun urre-txikiak; gatibuaren heriotza guri ematen zaigun oparia ere badą. Inondik ere elkar hartzeak urtuko ditu elurrak.

Beraz ez da hain zaila inmortala izatea. Plaza ez den hitza aldiz, espetxe itsugarri bihur lekioke hiztunari, orduan memoria bakardade potina da. Mintzokiderik ezean iragana baino ez dugun estatua lanturosak, negarjoleak gara. Egimaiteari atontzen ari zaizkio urkabea. Gerra egon denontzat dagoen arren begibista lausotzen du elur jasak, askok ez du ikusten. Bienbitartean Moloise loreak persekutatzen, Fleury-ko lore gatibuen atzetik hilko da. Ezinezkoa da ihesa, bueltarik ez du heriotzak, horregatik,behar bada, ahotan ibili behar etengabe hori. Poeta hiltzeaz bat estrainekoz lurmena ageri dela dirudi. Poesia. Gomutatzea zor dugu. Odolezko latsetan bainatzen direnek, Kaietenian GALekoen elausoak eramandakoak edota erresuma bertikaletan –diamante formako gartzeletan– ahazmenaren ukaldiz maiztutakoek jarri digute bedatsa eskura.

(Harri urdin baten kolpeaz lehertzen zareten arrebok / Gaua ez da armiarma bat baino, handia eta herabea / Nurenberg-eko errinozeroa, deskrizio urrunez egina / Gauagatik hartu zuten erleek Erroma, Zuberoa. // Rubizko latsetan bainatzen zareten lagunok / Zer da bada gorrotoa, denbora bera hainbestetan / Kaietenian sartu eta harritxintxorrak egoztea malkotan / Otarantzaz beteriko egunsentietan, ilunabarretan. // Bedatseko ihintzetan maitatzen duzuen arrebok / Orenen samurtasunez genituen bedeinkatu etxeak / Hölderlin berridatziz hogen gureak garbi zitezen / Izotzezko amodioak bezain arin, kolpe hotz batez. // Memoria urdinska bat zor dizuet, iragangaitza.)

Gu hemendik ari gara, distantziak lotzen gaitu. Negu iragangaitzak dauzkagu. Memoria liburua aletuz doa, azkena hurbil dago. Bada elkar bana litekeen bakardade babestu bat, kaleak konparti litezke, elkarren gorputzak, gorrotoak, hitza. Zerrenda ditzagun sufrimentuak berriz, eta osabideei ekin. Apirila –behar ez zuen hila– heldu da. Gainean dugu ejekuzioaren egunsentia.

(Kanela landareak / deskubritu nituen zure begietan. / Euri asko jausi zen gau hartan, / eta zin egin nizun: Enaiz berriro hilgo / Adaska alaien artean lo zen / ibaiak eraman zintuen egunsentian)

Lurpetik mintzo da Moloise –Kalparsoro bezala–, eta galegoz;

beti dago gogoak nora luzatua. Beteago dateke gure maitasuna urkatuari esker. Lagunak gogoan, zurekin nago baina bakarrik. Lirikotasun problematiko eta eskuzabala konstante bat da liburu osoan. Birritan esango dugu: banpiro solidarioak gara.

Ondoren apoarmatuak bataila osteko munduari erreparatzen dio. Ez dago behin-betiko garaitzarik, ordea derrota eta izuari karela topatzen diegu. Lurraren esneak hildakoak elikatzen ditu eta gu suspertzen. Hala ere lantzurdak bihotzak kristalduko ditu gerezi sasoian. Ez ginen seguru bizitzeko sortu. Zeozer bada elkarri apartenitzea. Mundua finitzera balihoakigu legezko larriarekin margotu ditu Bosch-ek arimak eta zoomorfoak. Munch-en oihuek usoak hiltzen dituzte parkean. Ez dago lainezteko arrazoirik, ez harrotzekorik. Dordoken lana eustea da.

4. Bakarreko bidea hautatu zuen Aranbarrik poesiarako. Ez dio inor askok jarraitu. Akaso ezinezko langintza izango da, xendra itsua zelako, karkaba zulo bat. Neretzat, hala ere, ez du azken hamar-hamabost urteotako euskal poesiak behar haina aintzakotzat hartu *Dordokak eta Elurrak* liburua. Nere iritzira neurri handiko den poesigintza honetara merkezurrean hurbildu gara.

Lauaxetak bere garaian bezala Aranbarrik Europako poesiarik honratuenaren –autonomoena?– oldera ekarri nahi izan du gurea. Azken hamarkadetan eraginkorren izan diren euskal poeten errainua somatzen da liburu honetan ere. Anitzago da ordea erreferentzi mundua: garai bateko Atxaga, Sarrionandiak edo Izagirrek haina pisu izan lezake Dylan Thomas eta Marcel Schowb-ek; zenbaitetan giro aldetik eta hizkuntzaren kezkari erantzuteko garaian Itxaro Bordarekin ahaidetasunak ikusten dizkiot, Luis Berrizbeitiarekin ere bai. Dena dela modu orijinalean oretzen du bere poesia Aranbarrik. Askotan eskutik helduta azaltzen dira berrizaletasuna eta tradizioa halabeharrez, bai lexikoan, bai irudietan (hegazkin eroriak- zitroi doratuak...), bai erreferentzietan (Oihenart-Panero...).

Argiketa paperak hildakoen liburu izatera ere jartzen dira. Herioren amarruak gainditzeko bademekuma da poesia, duintasunaren labana eta harria. Hermetismoak ate beste maratil du baina, atekak ateka berez da itxia, paperok kode ezkutu anitz dute gordean. Eta begiak ulertzeko eta ikusteko gose dira, arrain urduriak dirudite begizuloetan. Poesiaren metafora ere badelakoan nago *Dordokak eta Elurrak*, izan ere mezu zifratua, poesiaren handia, urtu beharreko itxuraren elurrarenpean dagoen apoarmatu urreztatua da. Bihurri mintzo da bihotza, itotakoaren ahotsez, Ascoliko brontzean mintzo da bihotza, dordoka zaildu hori.

Mimodramak eta ikonoak

JUAN MARI LEKUONA



Felipe JUARISTI

* Lekuona, Juan Mari. *Mimodramak eta ikonoak.* Erein, 1990, Donostia

POESIAREN KATEDRALEA

Katedrale bat irudikatzen dut, zerutik begiratuta, noski, txori batek egingo lukeen gisa, baldin eta txoriek ikustekoaz gain irudikatzeko ahala balute. Erdi Aroko kronikalari jakitunen ustetan, garaiko sinbologia zehatz bezain adierazgarriari atxikiz, katedraleak izar eroriarena zuen antza; baina gauza guztiak, goitik behera edo behetik gora begiratuz gero, ezberdin direnez, gaurregun ez genuke halako irudipenik jasoko, itsasuntzi erraldoi batena baizik, garizko itsasoan noraezean.

Hala ere, ez da harrizkoa buru muinetan finkatuxe daukadan katedralea, ez du Burgoskoaren, edo Leongoaren itxurarik, ez da horiek bezain ikusgarria, horiek bezain handia, baina bai horiek bezain ederra; formaz apalagoa bada ere, sinbolo kontuetan ez die inongo enbidiarik. Irudimenekoa baita nire katedralea, zerbait izatekotan. Mimodramak eta ikonoak.

Beharrezkoa zaigu Juan Mari Lekuonaren poema liburuaren funtsaz jabetzeko azkeneraino jotzea. Laster aurkituko dugu "Barandiaran" izeneko poema. Beharrezkoa zaigu poema hori behin eta berriro irakurtzea, horko hitzekin hausnarrean ibiltzea:

Sei aurpegiko, sei koloreko. Seiak
nahastuz, seiak txandatuz. Hala da
giza ulerkuntzaren kubo magikoa;
sei hegaleko aingeruaren kosmobisioa.

Okrea ezilkor. Megalitoa iraunkor.
Mitoa adierazpide. Liburua berri on.
Katedralea gizarte. Hiria etorkizun.

Antzinako gestuak datoz kontzientziaren
azalera: orain bat, gero bestea.
Bildumenaren bizgarritasuna; zuhaitzen babesa;
kronlexaren kontsumazioa; teilaren jabegoa;
eguzkiaren bidaia; habearen halabeharra...

Sei zenbakia aurkitzen dut behin eta berriro. Sei zatitan banatua liburua, zati bakoitzean sei poema.

"Zer da sei zenbakiaren errepresentazioa?", galdetzen dut ahots ozenez, norbait balego nire barnean, hark entzuteko moduan. Erantzunik ez. Den-dena dago bare eta lasai, inork gutxik, sarritan ezta neuk ere, soma lezakeen sakontasun horretan. Baina ez zait burutik joaten katedralearen irudia. Aspaldiko garaietara eramaten dut neure irudimena; hobe esanda, bera da joaten zaidana, nik agintzen ez diodan arren. Orduan, badira zenbait mende, Frantziatik ekarritako planoen arabera, Santiagorakoa izanik Europaren eta hemengo lurren arteko elkartzebide, katedrale berriak eraikitzeari ekin zioten, milagarren urtearen aurreko izuak airean aienatu zirenean; munduaren akabantzarena, Azken Judizioarena, jabaldu zirenean jende xehe zein handikiaren baitan. Izuaren aurkako eraikuntza izango ziren katedrale haiek, beren kupularekin, beren harrizko murruekin, beren lehiartzarekin, beren sinbologiarekin, zeina gure mendeko biztanleontzat aski ezezaguna egiten baitzaigu, hiztegi teknifikatu eta argigarri baten laguntzaz izan ezik. Gogora ekartzen dituzte aspaldiagoko kobazulo haietako iruditeria, hango bobedak. Katedralea da, ikuspegi horretatik begiratuta, kobaren ondorio eta jarraipen. Batean zein bestean giza-emakumeak bildu eta istorioak (mitoei buruzkoak) kontatu ohi zizkieten teoriaz besteak baino prestuagoak ziren apaizek, inguratzen zituzten eta ulertzera iristen ez ziren fenomenoen sorkuntzaz jabe zitezen. Mitoa kobazuloetan jaio zen eta mitoaren argi-ilunak adierazteko marraztu zituzten haitzulo haietako harrizko paretetan halako eskena batzuk (Juan Mari Lekuonak mimodramak deitzen die), eguneroko bizitzarekin zerikusirik zutenak, baina adimena harantzago ere eramaten zutenak, traszendentziaraino hain zuzen. Ezen traszendentzia (nor

bere egoera hilkorra gainditu eta ezilkor bihurtzeko saioa) baita artearen funtsa. Katedralearen ikonografiari eta sinbologiari gagozkionez, katedralea da giza-emakumea Jainkoarengana hurbiltzeko (Harekin bat egiteko ere bai) lekurik aproposena eta sakratuena. Baita Zerua Lurrarekin berdintzekoa. Juan Mari Lekuonaren "Obertura" izeneko poema hitz hauekin amaitzen da:

Eta hasieran koba zen. Eta kobako
ilunbean gaueko urek zuten aginte.

Kobazuloak historialeku bilakatu dira. Haietan idatzirik aurkitzen dugu garai bateko izuen genealogia, garai bateko antsien eta desiren morfologia. Elizaren antzekoa dugu kobazuloa, katedrale historiaurrekoa, errito zahar baten lekuko eta pinakoteka. Juan Mari Lekuonaren erreferentziak zuzenak dira alde horretatik, darabilen sinbologiak horixe adierazten digu bederen:

Zaurien santutegia. Harri estanpatuetan (Obertura)

Munstro odolzaleak, beldurraren aldarean, (Alegoria)

Harkaitz molduretan –lehen irakurgai–
zooantropiaren traktatua, logos elemental
baten erretaula polikromoa. (Magma)

Bitan dago liburua banatua. Lehenak "Gruteskoak" du izena. Hirutan dago banatua: "Izuen Genesia", "Fantasia Beltza" eta "Atabismoak".

Izua nola eta noiz sortzen den galdetzen dut ahots ozenez, norbait balego nire barnean, hark entzuteko moduan. Erantzunik ez. Den-dena dago lehenxeago bezain bare eta lasai.

Ezezagunaren aurrean, natur fenomeno ulertezinen aurrean sentitu ohi dugu izua. Gizakia baino gehiago ziren piztia eta animalien aurrean beldurtu ohi gara eta beti bilatu izan dugu izua leunduko lukeen kontsolamendurik. Aspaldiko haitzulo eta koba bazterrak eliza bihurtu ziren, giza-emakumeen txikitasunaren

erakusle, handitasunaren bilatze etengabea. Juan Mari Lekuonak adierazten digu poliki-poliki izuaren genesia eta haren garapena. "Eztanda" izeneko poeman, esaterako:

> *Belarritik barrendu zen zorigaitzen oroit-*
> *harria. Zitala tximistaren leherketa.*
> *Infernuko ortotsa galernaren itsas*
> *kolpea. Danbatekoa mendian bi suk*
> *elkar jotzean. Bizi denak daki,*
> *eztandarekin bat, etena dagitela*
> *odol zaragien larru joskerek.*

Mitoaren jaiotzaz ari zaigu poeta. Une honetan sekulako gogoa dut "Hasieran mitoa zen" edo antzeko esaldi koloretsu eta betiguztirakoa esateko, baina esana dago jadanik: "Hasieran hitza zen". Mitoa, azken finean hitzak sortua baita. Giza-emakumeek ehizatzen zituzten animaliak mito bihurtu ziren kobazuloetako paretetan. Horixe da guk ikusten duguna, Altamirako edo Ekaingo bazterretan: animalien irudiak, Arte hitzaz defini daiteken prozedura estetiko baten lorpenak. Ikusten ez duguna gehiago da ordea ikusten duguna baino. Zer da giza-emakume haiek sentitu zutena? zertan sinesten zuten? zein ziren inguruarekin zituzten harremanak? Badakit ikerketa historiografikoak gertaeren haritik interpretatuko duela guzti hori. Badakit ere interpretazio hori ez dela bakarra, badagoela beste bat, mitoetan oinarritua, poetikoa alegia, Juan Mari Lekuonak proposatzen diguna. Interpretazio hori, noski, estetikoa izango da, nahita nahi ez, edertasuna baitu helburu.

Mito guztiek zentzu elijiosoa dutela frogatu nahi izan digu, besteak beste, Mirecea Eliadek, Jainkoarengana eramaten gaituztela, Haren izatea baieztatzeko erabiliak izan direla esanez. Teoria hori, gaurregun, zaharkitua badago ere, ezen mitoei buruzko zientziak, arrazionala zientzia guztien moduan, mitoak sinbolo diren gisa ikertzen baititu, sinboloetan oinarrituz soilik, euskal mitologia aztergai izan duten askok eta askok Kristautasuna erabili izan dute galbahe mitoak aztertzerakoan eta mitoak biltzerakoan,

oraingo euskal kristaua eta antzinako euskalduna arraza bera direla frogatu nahian.

Juan Mari Lekuonak ez du hura frogatzen, frogatutzat jotzen baitu. Haren poema liburuaren arkitekturan ikusten duguna da, kobazuloetako eta katedraleko giza-emakumeen artean ez dagoela etenik, ez kulturalik ez estetikorik.

Liburuaren bigarren zatian garbiago somatzen dugu zer eraikitzen ari den Juan Mari Lekuona. Nabarmen egiten da horko asmo estetikoa:

Kandelarioz zikoinek udalehena
sahats-farfailetan irutean, zuhaitzak
biluzik prozesioan elurraren tenplu
altura... (Otsail)

Usain gozoak, musikak eta fantasiak
emankor bihurtu dute –dohatsuen
paradisu– maiatz birjinaren kupula
alegorikoa, jainkesen agerleku oskarbia. (Bedatse)

...Diz diz hierofanien hamabi
argi-zuziak, bidaia eliptikoen bobedazpian. (Eguberri)

Eta zuhaitzen nerbadura gotikoek
helmugatzat hartua dute, erakargarri,
dorre sideralaren puntaren puntan. (Artizar)

Abside metafisikoen alabastrozko arrosa da. (Eguzki)

Estasiaren gainezkaldian, leihoteria gotikoek
su hartu zuten, mihi eta hosto
kausituz, brodadura biribil simetrikoetan. (Atarrabi)

Hitz eta esaldi –zutabe eta moldura– bazuen
mintzagai ederrik. Baina Erdi Aroko lati-
na, euskal moldetara isurtzean, baxuerliebe
bihurtu zuen lekuko mintzaiararen arkitekturan. (Axular)

"Planeten adar-biran" du bigarren zatiak izena. Eta hirutan dago banatua: "Kalendera", "Enblematika" eta "Itzalen Galeria".

Katedrale gotikoa eraiki digu Juan Mari Lekuonak, haitzuloen arrastoa betidanik egon den tokian, euskal irakurlea bertara bilarazi eta euskal nortasuna definitzen duten mitoak eta sinboloak ahots garbiz adierazteko. Horixe da hasiera-hasieratik irudikatu dudana, zerutik begiratuta, txori baten gisa, txoriek irudikatzeko ahala baitute. Eta hegan egiten dute mitoen gainetik, giza-semen nekeen gainetik. Nekea baita mitoaren beste izena. Baina baieztapen horren argibidea hurrengorako utziko dugu.

Irudimeneko katedraleak izar eroriarena du antza. Sei zenbakiaren errepresentazio geometrikoa.



BIGARREN ATALA

SAIAKERA

Hizkuntza eta pentsakera

TXILLARDEGI

Jon SUDUPE

* Txillardegi. *Hizkuntza eta pentsakera.* Mensajero, 1972, Bilbo

HIZKUNTZA ETA PENTSAKERA: EDO ESTRUKTURALISMOAREN MUGAK

Txillardegi dugu gaur egun euskaldunok daukagun saiolaririk garrantzitsuena Koldo Mitxelena zenarekin eta Joxe Azurmendirekin batera. Bera de lehen euskal entsaio modernoaren egilea. *Huntaz eta Hartaz* izeneko entsegu gogoangarri hark bide berriak urratu ezezik, haize berriak ere ekarri zizkion gure hizkuntzari. Saiakeraz aparte, puntako eleberriak, gramatika bikainak eta ehundaka artikulu mamitsu eginak ditu, beti ere euskara bizi, aberats eta dotorez oratuak. Bera izan da, hitz batean, gure literaturazko modernotasunaren branka.

Guztiek aho batez aitortzen dutenez, goreneko maila irabazi du euskal idazleen artean gure antiguatarrak. Ongi mereziak ditu, beraz, gure eskerrona eta begirune kritikoa, nahiz eta egiteke dagoen oraindik bere pentsamendu eta lan eskergaren balorazio orokorra. Hainbat arrazoirengatik, ni ezin naiteke mintzaide egokiena izan haren ekarri oparoa kritikatzeko. Hizkuntzalari edo literatur kritikoren bat litzateke, agian, aztertzaile egokia. Alabaina, besterik ezean, eta J.L. Zabala herkideak eskatu didanez gero, barkatuko ahal dit irakurleak kritika kaxkar hau argitara emateko izan dudan ausardia.

Gogoratu beharrik ere ez dago Larresoro izenordearen pean argitaratu zuela liburu hau Txillardegi izengoitiz izendatu ohi dugun idazleak. Esan beharra dago, hori bai, bera izan dela estrukturalismoaz euskaraz mintzatu den lehen idazlea. *Hizkuntza eta pentsakera* saio bildumak pentsamenduaren funtsezko kezkak, interesgune eta *temak* laburbiltzen ditu nolarebait.

Duela hogei urte pasatxo Euskal Herriak bizi zuen historiune sozial eta intelektualean kokatu behar da Txillardegiren saiakera hau. Hots, idazlan hau kinka jakin batean idatzia izan zen, eta, kontrazalean dioen bezala, *leit motiv* bakarra zuen: *marxismoaren esan batzu estrukturalismoaren argitan aztertu.* Marxismoaren kontrako burruka da, bada, *Hizkuntza eta pentsakera* honen benetako transfondo politikoa.

Hizkuntza: bereizle ala batzaile?

Lengoaiaren izaera konplexua da oso eta mintzairak aztertzeko ikuspegiak ere desberdinak dira. Hiru bereiz daitezke, gutxienez. Ikuspegi linguistikoa legoke lehenbizi, lengoaia bere horretan, kanpotiko zerarik gabe ikertzen duena. Bigarrenik, ikuspegi soziolinguistikoa daukagu, hizkuntzaren alderdi sozialez arduratzen dena. Eta ikuspegi soziologikoa, azkenik: bere ahalmen sinbolikoarengatik, ezagutzen duen pisuarengatik eta komunikazio tresna nagusia izateagatik guztiz garrantzitsua den errealitate soziala baita lengoaia. Saio honetan batez ere azken ikuspegi honetatik begiratzen dio hizkuntzari Txillardegik, nahiz alderdi linguistikoa ere jorratzen duen, euskal bokalak edota koloreen izenak aztertzen dituenean, adibidez.

Oinarrizko arazo filosofiko bat planteatzen digu: zein dira hizkuntza eta pentsamenduaren arteko erlazioak, edo zehatzago esanda, ea hizkuntza ezberdinek mundu ikuskera ezberdinak taxutzen eta moldatzen ote dituzten. Hitz batean, hizkuntza eta *Weltanschauung*-en arteko harremanez dihardu antiguatarrak hemen.

Hizkuntzak zein erabakiorki mugatzen dituen herri baten pentsamolde eta izakera azaldu eta ikustarazi nahi digu. Hizkuntza bakoitzak bere pentsakera berezia, azterketa berezia, taxukera berezia ematen duela esango digu behin eta berriz Lévi-Strauss aipatzen duelarik: *Lengoaia ez dagokio bakarrik gizonaren muinari; hizkuntza jakin batek funtsezko zerikusia du gizatalde jakin baten izaera eta irautearekin.* Hizkuntzak moldatzen du funtsean herrien pentsakera. Tesi hau etengabe errepikatzen zaigu izkribu osoan barrena.

Neurri handi baten arrazoi du Txillardegik: hizkuntza eta pentsakera eskuz-esku doaz; gure mundu ikuskera lengoaiaren bidez taxutzen dugu. Pentsamenduak elkarrizketazko egitura du eta, beraz, ekintza linguistikoa da. Bestela esanda: hitzen eta esaldien bidez pentsatzen dugu. Egia da, baitere, gizarte bat besteetatik bereizten duten ezaugarrien artean hizkuntza dugula nabarmenenetakoa. Hizkuntza batek egiten du herri bat beste ezerk adina edo gehiago, K. Mitxelena zenak esango lukeenez. Alde honetatik ez dago zalantzarik.

Baina giza-izpirituaren batasuna zalantzan jartzea, bigarren kapituluan egiten duen bezala, gehiegikeria bat da inolaz ere. Txillardegiren ustez, hizkuntzak elkarri ezin alderatuzkoak ditugu (elkarneurgaitzak, esango luke T. Kuhn-ek). Bere iritziz, ez dago Logikazko hizkuntzarik ez ikuskera logikorik. Logikaren seme ez direnez, *hizkuntza guztiak funtsez dira desberdinak.* Osorik onartzen du Txillardegik Humboldt-en teoria hau.

Jakina denez, hizkuntz erlatibismoaren lehen formulazioa, gero Sapir eta Whorf-ek garatu zutena, Humboldt-i zor zaio: *hizkuntz egitura bakoitza mundua atzemateko modu bati dagokio.* Humboldt eta erromantiko alemaniarren ustez, hizkuntza da Herri baten arima. Hauek diotenez, azpiko indar batek, herri izpiritu batek determinatzen ditu bai pentsakera eta bai hizkuntza. Eta ondorioz, ez dago bi hizkuntzen artean berdintasunik.

Txillardegirekin ez nator bat horretan. Hizkuntzak hain desberdinak direnik ez dut inolaz ere sinesten. Honetan ere Koldo Mitxelena zenaren hitzak ekarriko ditut hona neure iritzien lagun: *gizona* (nahiz zuri, nahiz beltz, nahiz hori) *gizon den bezalaxe, giza hizkuntza ere ez da, funtsez, giza hizkuntza baizik alde eta aldi oro, nahiz axaleko ñabardurez bereiz agertu.*

Benetako mintzairaren unibertsalik badela uste du Chomskik. Posible da, hizkuntza desberdinètatik abiatuz, hizkuntzaren gramatika ideal eta osoa eraikitzea. Chomskiren ustetan, gizaki guztiek gramatika arau berberak dituzte, edo bestela esanda, hizkuntza guztiek mintzairaren egitura berberak dituzte.

Gizabanakoa, funtsean, hitz egiten duen izaki bat da. Lengoaiak mediatizatzen du errealitatea: munduarekiko ezagutza eta harremana, besterekiko ezagutza eta harremana, norberarekiko autoezagutza eta harremana. Gure errealitate linguistikoaren kontzientziak filosofia modernoaren bizkarrezurra zen solipsismo –indibidualismo– metodologikoa desegin du.

Azken denboretan filosofi alorrean gertatutako aldaketarik nabarmena Richard Rortyk «biraketa linguistikoa» deitu duen hori izan da. Bigarren Witgensteinengan oinarriturik, mintzairaren eginkizun komunikakor eta pragmatikoa azpimarratu izan du jarrera berri honek. Hizkuntz biraketa hori eta Austin eta Searlek landutako hizketa egintzaren teoria oinarritzat hartuz, pragmatika unibertsalaren teoria eraiki dute Habermas eta Apelek.

Hauek diotenez, lengoaiaren egitura arrazionala bereziki komunikakorra da: elkar ulertzeko hitzegiten dugu. Hizkuntza elkar aditzeko egina dago, elkarrengandik bereizteko ez baizik elkarrengana biltzeko. Oposizioa ez baino akordio du helburu. Batipat elkar ulermenerako bidea denez, hizkuntzak kontsentsura bultzarazten gaitu. Mintzairaren zimendu arrazionaletan oinarriturik dagoen akordio joera hori da Habermasek proposatzen duena.

Gaur egun onartzen den errealitate objektibo bakarra intersubjektibitatea da. Egia akordioan datza. Arrazoi du, alde batetik, Txillardegik: lengoaiaren mende gaude erabat; besterengandik jaso eta bestelako denbora eta kulturen substraktua den mintzairaren menpean gaude. Baina, bestetik, bere mugen jakitun dago gizabanakoa; badaki bere arrazoia ez dela monologikoa, dialogikoa baizik.

Bistan da, beraz, hizkuntza alde-batetik bereizle dela, eta bestetik batzaile. Txillardegik dionaren kontra, hizkuntza ez da beti, eta denean, diferentziala. Funtsean hizkuntza batetik bestera igarotzea ezina bada, zer arraio gabiltza ume erdaldunei euskara irakatsi nahiean? Ezen K. Mitxelenak egoki zioenez: «*Hizkuntza desberdinen muinean eta ondoan Giza Mintzaia dago.*»

Soziolinguistika versus gramatika

Ferdinand de Saussure da, jakina denez, hizkuntzalaritza orokorraren sortzailea. *Langue* (hizkuntza) eta *parole*-aren (edo hizketaren) artean bereizkuntza guztizkoa ezarri zuen linguistika estrukturalaren fundatzaileak. Komunitate linguistiko batek daukan zeinu sistema dugu hizkuntza; hizketa, berriz, bakarkako egintza da, subjektuak sistema horren erabilera selektibo eta diferentziala egiten baitu. Garbi dauka Saussurek zer den, bere ustetan, soziala eta funtsezkoa eta zer indibiduala eta akzidentala: egitura abstraktua eta gizarteko tresna homogeneoa da hizkuntza; hizketa, ostera, aukera indibidual bat besterik ez. Hizkuntza, lehenik eta behin, erakunde bat, instituzio bat da.

Hizkuntza eta gizartearen arteko elkarreragina gutxietsi egin bide zuen estrukturalismoaren aitak. Hizkuntzan nahitaez islada eta eragina duten aldaketa sozial eta politikoak, desberdintasun sozialak, botere harremanak eta antzekoak «kanpotiko linguistikatzat» zeuzkan genebatarrak. Hizkuntzaz kanpoko faktoreak izaki, hizkuntzalaritzatik bazter utzi zituen. Ondorioz, edozein hizkuntzak bere kontestuarekiko dituen erlazioak ez zituen behar bezala aztertu, hizkuntza bere baitatik ikertzea baitzen bere helburua.

Chomski, gramatika sortzailearen aitak, bere aldetik, lengoaiaren arauen ezagutza abstraktura mugatzen du linguistika (*competence*, hizkuntz gaitasuna deritzo honi), erabilpen linguistikoaren ikerketa (edo *perfomance* delakoa) alde batera utziz. Hizkuntza guztiz ongi ezagutu eta gramatikaz kanpoko eraginik ez duen hiztun-entzule idealaz arduratzen da hizkuntz teoria chomskiarra.

Ez Saussurrek eta ez Chomskik hartzen dute kontutan testuinguru soziala. Hizkuntza eta gizartearen arteko harreman ezin estuagoari linguistikaren adar berri batek egin dio jaramon berezia, ia oraintsu arte (lehen konferentzia Los Angelesen ospatu zen 1964ean) «heterodoxoa» izandako soziolinguistikak, hain zuzen. Linguistika estrukturalak hizketaren azterketari edota gramatika sortzaile-bihurtzaileak performantziarenari ematen dion garrantzi txikiegiaren

aurrean, hizkuntzaren erabilera ñabar eta askotarikoa hartzen du kontutan soziolinguistikak.

Nahiz eta estrukturalismoaren (zein Chomskiren) defizit edo mugapen hau aipatu ere ez egin bere liburuan, Txillardegi bera izan da harrezkero hizkuntzaren alderdi honetaz gehien arduratu direnetakoa (diglosiaz, bereziki) gure artean. Ibon Sarasolak goraipatu egin du berriki Txillardegiren bilakaera edo aldaketa hau. Izan ere, hizkuntza oso fenomeno konplexua da, izan, eta bere alderdi ezberdinen artean soziologiari dagozkionak dira, beharbada, nabarmenenak.

Soziologiaren ikuspuntutik Parsons izan da hizkuntzaren izakera guztiz soziala gehien azpimarratu duena. Sistema sozialak, bere iritziz, sinbolizazio linguistikoaren eta komunikazioaren menpean daude. Lengoaia da komunikazio tresnarik orokorrena: hortik eratorri dira gainontzeko mekanismo sinbolikoak (dirua, boterea, etab.).

Hizkuntzarekin batera arau eta balore sozial batzuk geureganatzen ditugu. Zentzu honetan, kontrol sozialeko sistema edo mekanismoa dugu hizkuntza. Inposatu egiten zaigun sorkari soziala da mintzaira: ezarritako zerbait da guretzako; beraren bidez egiten dugu munduaren ezagutza eta sortzen geure pentsamendua. Pentsamendu dialogikoa ezinbestean, gizartea bera baita gure solaskide.

Bourdieu-k bere *Ce que parler veut dire* liburuan hizkuntza eta boterearen arteko erlazio estua erakusten digu: gizarteko talde ezberdinen hierarkia adierazten du hizkuntz egoeren hierarkiak. Botere harremanak zein gizarte desberdinkeriak isladatzen ditu hizkuntzak. Horregatik, nagusitzen den hizkuntza, nagusi den klasearen hizkuntza dela esan dezakegu Marxen esaldi ezaguna aldatuz.

Lengoaiaren arazoa komunikazioaren zelaira ekartzeak politika eta etikarekin zerikusia duten arloak irekitzea suposatzen du, bestalde. Hizkuntza eta Estatua, hizkuntza eta politika hertsiki loturik daude. Txillardegik berak aitortua du hizkuntzaren eta politikaren

arteko gorabeherak aztertzen hasten direnean, zozokeria handiak esan ohi dituztela hizkuntzalariek. Estatua da hizkuntza baten etorkizuna erabakitzen duena. Askatasuna izan ala ez izan, *Erresuma libro batean lege-hizkuntza izan ala ez izan*, horretan datzala auziaren kakoa eta egiazko giltzarria esaten digu Txillardegik. Eta egia du, beharbada.

Nolanahi ere, Euskal Autonomi Elkarteak, garai batean Estoniak bezalatsu, badu gaurregun, erdizka bederen, aginterik euskara zuzpertu eta berreskuratzeko. Baina, hori bai, hizkuntzaren betekizun nagusia elkar ulertzapena eta akordioa iristea den bezala, politika linguistikoan ere ahalik eta adostasun eta kontsentsu handiena lortu behar da. Hots, euskal herritarrek dute azken hitza. Zeren eta, Txillardegik berak inoiz idatzi izan duenez, *hizkuntza gizonaren zerbitzuko da, eta ez alderantziz gizona hizkuntzaren.*

Txillardegik liburu hau idatzi zuenean amestu ere egin ez zitzakeen aurrerapausoak eman ditu euskarak azken hogeita bost urteotan. Euskara hizkuntza normal eta ohizko bihurtzeko egin den lana ikaragarria izan da. Gaur bertan jakin dugu euskaldun bat izendatu duela idazkari nagusi Euskadiko Partido Popularrak, euskara bultzatzearen aldeko jarrera agertu nahiz edo. Egia da, halere, euskara ez dagoela guztiz prest kultura tresna izateko eta egiteko asko dagoela oraindik normaltasun erreal batera iritsi ahal izateko.

Estrukturalismotik posestrukturalismora

Txillardegiren saiakera hau agertu zenerako, luzaroan jaun eta jabe izandako marxismoa gainbehera zihoan Frantzian. Ideien burruka-zelaian irabazle atera zena estrukturalismoa izan zen. Estrukturalismoak arrakasta izugarria izan zuen hizkuntzatik kanpo ere jakintzaren eremu askotan: etnologian (Lévi-Strauss), psikoanalisian (Lacan), literaturazko kritikan (Barthes), genealogian (Foucault) eta beste.

Estruktura eta subjektuaren arteko lehia berezi horretan Lévi-

Strauss nagusitu zitzaion Sartreri: *Giza zientzien azken helburua ez da gizona eraikitzea, deuseztea baizik.* Hori izan zen joera berriaren deiadarra. Althusserren eskutik etorri zen marxisten erantzuna ez zen proposamen estrukturalistak arbuiatzea izan, indartzea baizik. Lévi-Straussi eraso beharrean, honen ideiak bere egin zituen Althusserrek marxismoaren antihumanismo teorikoa aldarrikatuz. 68ko maiatzaren ondoren, haatik, bere teoria zuzentzen ahalegindu zen Althusser *masen* papera azpimarratuz. Baina beranduegi zen: marxismo althussertiarrak porrot egin zuen 1970eko harmarkadaren erdialdera.

Estrukturalismoa modako bihurtu zen, bada, eta liluratu egin zuen Txillardegi (marxismoak liluratu gintuen modu berean). Eta hor egon da Txillardegi eta gu guztion akatsa: estrukturalismoa (zein marximoa) filosofiatzat edo mundua esplikatzeko dotrinatzat –erlijio gisa, askotan– hartu izana. Ezen Saussure berak esan ohi zuenez, hizkuntz barrutirako bakarrik balio zuen bere metodoak, ez beste alorretarako.

Hizkuntzatik kanpora gertatu den estrukturalismoaren hedadura neurriz gaineko horren ondorio zuzena da Frantziak une honetan bizi duen «sasarte teorikoa»: orain posestrukturalismoa da lehen estrukturalismoa zena. Foucault, Lacan, Derrida, Deleuze ditugu azkenaldi honetako maisu pentsalari berriak, baina kontu honek urrunegi eramango gintuzke..

Zoritxarrez, egun ez dago gure artean azken orduko korronte eta joera hauek argituko dituen entsegugilerik. Txillardegi bera ere, ideia berrien propagandista izan ondoren, mututu egin bide da, ez baitigu aspaldian pentsamenduzko saiakera berririk oparitu. Eta tamalgarria da, benetan. Agian eskainiko digu besterik Antiguako euskaltzale porrokatuak!

O tempora! O mores!

EDUARDO GIL BERA



Patziku PERURENA

* Gil Bera, Eduardo. *O tempora! O mores!.* Pamiela, 1989, Iruñea

Hauek garaiak! Hauek gizonaren ohiterak! Hau bizimodua, gurea! Hau musika! Horra liburuaren barrengo doinua. Kadentzia horixe dizu liburuko partiturak. Ahots zurikorik batere ez. Tiple zikiraturik gutiago. Dena ahots nahasian; allegretto eta tremulo zakar ugari, konpas bitara; ahotsa goitik ozen eta behetik gozo beti, azkenean akorde libragarri bateraino heltzeko. Nornahiren kontzientzia eta morala urratzen dituen sinfonia zaharra. Zoragarria eta noblea liburua, egilearen beste guziak bezalaxe. Azaleko itxura eta ergelkeria nagusi diren honetan, barrendik atsegin hartu nahiko bazenu, hagitz interesgarria nere idurikotz. Honatx pasarte *allegretto* batzuk lekuko, nere gisara ilbanduak:

Kontzientzia

Liburu zaharretan izen aunitz para zaizkio: marrantatzen ez den predikaria; beti darraigun itzala, bihotzean alatzen zaigun harra. Baina egun kontzientzia zer zaigu? Muturrez mutur dugun afera, eta horrexegatik gogorki zaila arazotako ikusteko. Ezagututzat ematen duguna, egiten baitzaigu ezagutzeko zailena. Kontzientzia, hasteko, giza eritasuna dugu. Nork esan, mende oso batez besterik ohoratu ez den herri honetan?

Zertaz eritasuna ordea? Beti errateko prest egotea baita. Horra egungo gizakiaren eritasuna. Beti errateko prest egote hori, hain zuzen, giza sentikortasunaren desantolamenduen funtsa eta are etorkia izaki. Horretan prezeski kontzientziaren eginkizuna: taigabe geure buruaren lekuko egin beharrarena. Gure ekintzetarik, fitsa da kontzientziara iragaiten dena; eta fits hori ere, desgisatua eta adierazpenaren moldera normaldua. Fits horrek markatzen digu gure tokia artaldean.

Baina, fits horretaz gainerako guzia zer zaigu? Horixe da, hain zuzen, egungo zientzia ergel orok zeharo ukaturik daukana. Horixe pentsalariak gogora arazi nahi digun alderdia. Eta nola gogora arazi ere: zenbat eta kontzientzia haundiago, orduan eta zeure burua salduago; bestela esan, orduan eta artaldekoiago; kontzientzia gizarteari pagatzen diogun petxa baita finean. Beti bere buruaren berri emateko prest dagoena, huraxe duzu kontzientziako eritasunak joa. Gaurregungo jendaje normaldu guzia. Kontzientziadun izateak, aldez aurretiko araudi batera makurtzea dakar beti; zernahi gauza ulertzeak errepikatzeko gauza izatea dakarren bezalaxe. Non gelditzen da orduan gure beste alderdi guzia? Non diozu? Zeure baitan. Horretxetan duzu zeure nortasun puskarik haundiena.

Komunikazioa

Ohargarri da komunikaziorik eza zorigaitzik haundiena bezala nola jotzen den. Egungo gizarteak bizi duen egoera patologikoaren markarik agerikoena da. Horra hor kontzientzia eritasunaren petxa paga behar tristea. Ekintza guziek, kontzientziaratzean (hau hitza!), erran nahi baita, aipatzean, hitzetara ekartzean, galdu egiten dute beren izaera bakarra eta alderaezina; izanez ere, adierazpen arauetara murriztuak eta lermatuak gelditzen baitira derrior. Eta horixe duzu, hain zuzen ere, komunikazioaren funtsa; gertakarien zatirik haundienari uko egitea, erabilgarri eta adigarri egitearen truke. Zinez prezio haunditan erosten dugu hainbat harrotzen gaituen giza ahalmen hori: komunikazioa. Gaitz zabaldu horretxi esker bizi dira, komunikabide guziak, abokatuak, epaileak, eta egiazko bertsioan seko sinisturik dauden hainbat eta hainbat txoriburu moderno justiziazale.

Kontramintza

Nork nola esplika dezake adimendutik ekintzara dagoen aldea, zubia, maratila? Orain taldeko gizakia da mintzo: «zentzuren bat behar dute derrior ekintzek, nik pisatu behar ditut nahitaez, bertzenaz bizitza jasanezina zait». Ederki! Eta ekintza oro pisatu nahiak ez ote lezake bizitza are eta jasanezinago egin? Amets gaizto batetik iratzartzean ikusten dugu ederki nola gezurra den logika bakar batez pentsatzeko gauza garelako kontua. Hor gaur modan dagoen beste

hitza sortzen zaigu: kontramintza. «Ez pentsa, badakit nik ere neure kontramintzak baditudala». Badirudi hori erranik, lo lasai egin dezakegula. Ororen buruan «nik ere badut kontzientzia!» errateaz bertzerik ez da. Gramatikakeria hutsa. Kontramintza, predikatzen den gisaz, zama baldin bada, ez dakit hori baino zama arinagorik izan daitekeen. Adibideak konta ezin ahala dira. Aski dugu gizakiak bere buruari libre eta arrazoidun deitzen diola ohartzearekin, edo gure inguruko jenderik gehiena bere burua baino lehen urkoarena maitatu behar dela esaka ari den sekta batekoa dela ikustearekin. *Bai dohatsu direla behartsuak!* dio apezak kulpitutik. *Sinesten dut! sinesten dut!* laborariak behetik. Baina, eliza hartan ez izaki inor sinesten duenik dohatsu direnik behartsuak. Horra gramatikakeria hutsaren froga. Kontramintzak ez baitzuen laboraria deusetan baldatu.

Inoizko errepresiorik ezaren miraria

Freudiar ikuspegitik ari zaigu Marcuse, beraz sailkapenik ezin falta. Hiru aro izan omen ditu giza moralak: 1. aitzinako gizaki zentzukoia; 2. kulturako gizaki erreprimitua; 3. gizaki bertzentzukoitua (hau hitza ere!) parabisuari edo halako zerbaiti dagokiona. Lehen aroan, gizakia errepresiorik gabe, zetorkion lehen istintuari ematen zen bertzerik gabe; gisa hartan etzen batere aurrerapenik. Orduan, plast!, errepresioa, eta harekin batean aurrerapena; erran nahi baita, gizakiak asmatzen, izkiriatzen, eta sinfoniak konposatzen dituela errepresioaren bidez eta graziaz. Baina, edozein izakigan, zer da eta nork nola esplika lezake errepresiorik eza. Zirripetan, lasterretan, zipristin farrastaka burkaitzei behera doan errekako ura libre ote da? Izaki oro bere moldearen legepean da. Hau, pellokeria ematen duen hau, ez bide dakite errepresioarekin gora eta behera ari diren horiek.

Beste miraria: 68ko maiatza

Omenak eta pintadek bildua, ikasle saldoa juntatzen da Denfert-Rochereau plazara. Zertara? *Nik ere ez zekiat, orain erranen dik norbaitek hain segur.* Horra arazoa. Behin bildurik ez dakite zer egin. Azkenean saldoa mugitzen da Santé aldera eta sakabanatzen. Erretoregoa hartzeari buruz, ez dakit ikasle belaunaldirik izan den

halako zuntzenkeria ezagutu ez duenik. Hori bai, haiek, historian sartzeko, frantses telebista hartu zuten, agian oroitzen ziren behiala beren ataütxiek Bastilla nola hartu zuten. Telebistari buruz, «hartu» ere ez da hitzik zehatzena, sartzerik baizik egin ez baitzuten. Hartaraturik zer egin? Sermoi izugarri iraultzailea bota, ederki, argi handien azpian, baina, beldur dira halare, urka bihurra sumatzen kokozpean edo. Orduan, ororen salbaziorako, baten bat ohartzen da batere langilerik ez dela tartean. Badakizu, langile klaseko bat behar. Renaulteko langile bat eskatzen dute. *Ez dugu horrelakorik, horiek Renaultenean dituzue hain segur* diote telebistakoek. *Orduan bagoaz. Irudimena boterera!* diote sutsuki iraultzaileek. Nork dakike non nola ginatekeen gaur, langile hura han izan balitz? Horra historia irauli duen gertakari ikaragarria. Manifestapenei buruz, berriz, Euskalerriko edozeinetan izan da istilu eta egur gehiago.

Obedientzia ala borondatea

Gizakia, nori berea eman behar bazaio, animaliak baino maila batez gorago dago; hauek betetzen dituzte istintuak; gizakiak horretaz goiti, manamenduak bilatzen ditu. Artaldeko izateko grina eta atsegina zaharragoa da norbera izatekoa baino. Bestalde, obedientzia librakuntza haundia da. Libertatearen zama uztarririk garratzena baino garratzagoa suertatzen baita. Nor ari da lotan obedienta baino goxokiago? Eta libre dena nork du adoratuko? Hortaz dotrina zahar bati ematen zaio sinismena; egiazko libertatea libertatearen beraren dohaina uztea eta abandonatzea da. Nori? Nola? Erraza da. Manatzen duenari eta agudo. Ikaratzekoa baita, zein misterioetara eraman dezakeen giza gogoa libertate latzaren erabiltzeak. Funtsean horixe baita gizakiaren eskaera: *nitaz salba nazazue!* Horregatik gizakiari premiazko zaio ordezkariarena egitea: *populuaren zerbitzari, herriaren alde, Jainkoaren izenean, botu emaileen garrantzia.* Zinez mintza liteke beharrik gabeko hizkuntzaz? Adigarri izanen litzaioke gizakiari? Bistan da ezetz. Gorriena da, libertate modernoak zentzuzko behar zahar bakoitzetik gordetzeko hamaika behar berri sortu dizkigula: gaindibeharreko zeloak, lortu beharreko lanpostuak, osasun maila, duintasun eta beste mila normalkuntza, ezen sunormalak garela pentsatzetik abiatzen baita egungo zientzia txatxu oro.

Normalkeriaren tartarra

Horra nere pena: euskaldunak ere, sunormaltzat bere burua. Euskara normaldu beharra, ekonomia normaldu beharra, politika normaldu beharra. Ekologia normaldu beharra, arrazismoa normaldu beharra, eskola normaldu beharra. Ba ote sunormalkeria haundiagorik? Inkestek eta estatiskikek, zenbakitan para dute gizon normalaren goitibehitirik eza. Gorabeherak, kuidau, akatsak, tatxak, eta are delituak dira. Horra demokraziaren eta parlamentarismoaren bazka. Horra giza gogoaren entropia. Gizon normalduak izan behar duen gauzetarik baitezpadakoena *kultura orokorra da.* Egunero munduan zer gertatzen den ikasi, haintzat hartu serioski, eta gainera erantzun posible guziak prest eduki: horra gizon normalduaren kezka nagusia. Are parregarriago dena: uste du kazetak, irratiak edo telebistak galde hau edo hura egitean, erantzulea bera dela eritzi sortzaile. *Erran dakigun zer eta nola epaitu behar dugun, eta orduan eriztun izanen gara.* Galderak berak puskarik haundiena, eta erantzunaren erabilpenak gero, deus ikusirik ez balute bezala. Normalkeria baino lehenagoko denboraz, nork bere solaskide interesatua bakarrik bereizten zuen. Normalkeriaren feria honetan ordea, den denek gauza bera nahi dute: zenbat eta publiko zabalagoa orduan eta hobe; artalde osoa miresle ergeldu izatea litzateke perfekzioa. Miloika buruk gogoa batera. Nork asma diktadura okerragorik?

Gizaki normalduaren arnasa

Musika eguna; ingurugiroaren eguna; amaren eguna; emakume langilearen eguna; zuhaitz eguna; aberri eguna; nekazari eguna; euskararen eguna; mahai inguruak; ihardunaldiak; topaketak; jaialdiak; hamabortzaldiak; hauteskundeak; osasun publikoa; zer den eta ez den jan behar; ezaitez droga; egizu irri; lagun urkoa maita; preserbatiborik ez ahantz; kondena ezazu hori; lauda ezazu hura; botua eman gero; errespeta itzazu aitonak; beha autoko neumatikoak ongi haizaturik diren; ezar kabrestua; etzazula sobera edan; ez erre; goza zaitez... Zertan luza? Ez da hau inposatzen den zerbait, ez. Hau gizon normalduak behar beharrezko duen hatsa da, bertzenaz itotzen da. Edozein egunetan ikusten da Leitzan bertan. Eta

nolako azarria eta fedea paratzen gainera, jendeak! Bistan da, normalduaren sintomarik ageriena, aisialdia pairatzeko ezintasuna dela. Dagoeneko hasiak dira aisialdia nola bete irakaspenak ematen nonahi. Eta kuidau holako *egun santu* bakar bati ere kritikarik egin! Espainolista traidoreka zintuzke! Bai, gizaki normaldua harrotu egin zaigu, eta ez arrazoi eskasez, ez. Denek hura baitute aipatzen eta aupatzen: kazetak, iragarkiak, telebistak, politikariak, iraultzaileek, herri salbatzaileek. Normalduaren bizimodu perfektuak azpiko soinu hori behar du etengabe, irria iratxekia eta gehitua duten umorezko pelikula ergel horiek bezala.

* * *

O Tempora! O Mores! Hauek denborak, etorri zaizkigunak! Hau gizamodua! Hauek ohiterak! *Ubinam gentium sumus? Quam rempublicam habemus? In que urbe vivimus?* Hau guzia nork esana den? Barkatu. Eduardo Gil Berak berberak. Barkatu. Napar batek. Barkatu. Napar osokoak gainera. Tuteran jaio eta Elgorriagan hazia den batek. Lur lau gorriak eta basomalkor beltzak ikusia izanik, probintxi xuri aldera kuxkurtu ez den napar bakanetako batek. Euskarak eman duen lehenengo pentsalari liberalak. Gure gogo extua oraindik inork ez bezala lasatu duen noble eskeptikoak. Euskal literaturan, inoizko urrerik gozoena lantzen ari denak. Atxagarena, bere garaiko komertziante negarti pantasiosa baten girgileria besterik ez litzake, harenaren aldean. Barkatu, barkatu, barkatu. Igerriko zenion gaurgero: katedratikoek, apezkondo antropologoek, intelektualillo demokratta ahoxuriek, eta gainerako euskaldun normaldu guziek zokoratua daukaten *rara avis batez ari naiz. Zeinen izengoiti polita, ez? rara avis.* Zer pentsatua eta guzi ematen du. Ez da mirari. Bost mendetako hutsa betetzera etorri baita Gilen lana euskararen alorrera. Hobeki esan, bost mendetako tortika kentzera. Eta jendeak ezin eraman zolpeko gordina. Ezin bapatean kendu hainbeste zolda gainetik. Beharrik, azalak itxura eta omena alde izanarren, denborak ederki bereizten duen ale gizena eta akala!

Schopenhauer, Nietzsche , Spengler Miranderen pentsamenduan

JOXE AZURMENDI

Emilio LOPEZ ADAN

* Azurmendi, Joxe. *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan.* Susa, 1989, Donostia

Liburu hau irakurri nuen nazionalismoaren bilakabide orokorraz burua galderaz bete nenbilenean. Gutaz pentsatzeko parada eman zidan eta, beharbada, idatziko dudana ez da hainbeste irakurketaren kronika edo kritika, baizik eta ene arazo eta fantasmen esposaketa interes gabekoa. Bainan idazleak eta liburuak, gisa guztiz, lekua merezi dute azken urtetako kronika literarioan. Gizona, hasteko. Joxe Azurmendi entsegu idazle oparo eta zorrotza da; gainera, beti euskaraz idazten du. Bistan da zein tokia aukeratu duen. Erudizioa eta luma zorrotza biltzen ditu. Gure memoria historikoaren gordailua da; zanpatzen gaituztenen ahulezia kontzeptual eta intelektualak ironiaz beteriko herraz seinalatzen ditu. Holan, gehien hunkitu gaituzten arazoak eta pertsonak ikertu ditu. Hots, lehen eskuko materialak bildu eta arakatu ditu, ez soilki gure produkzioan baizik eta pentsamendu unibertsalean (eta bereziki Europa Erdikoan) ere, eta material horien analisia gurean bizienak diren oraingo arazo politiko-sozialen ezagutzera aplikatu ditu, entsegurako bizia eta aberatsa den hizkuntzaz. Hori guzti hori, eta asko da, zor diogu.

Entsegu politiko-sozialen idazleak eskuak sartzen ditu eguneroko grinaz eta borrokaz oratzen den pastan. Ideien bidez zerbait egin nahi du. Eta alor honetan euskal idazlearen egoera oso gogorra da. Hizkuntzak berak mugatzen dio zabalkundea; entsegu liburuetan idazten dena zabaltzeko eguneroko prentsak arras gutxi egiten du; hitzaldi eta mahaiņ inguruen maiztasuna eta publikoa arrunt murriztu dira azken urteotan... Ez dira gauza berriak. Azurmendik 1977an horrelako zerbait seinalatzen zuen: «Lana da euskal literaturgintza. Lan gogorra. Ęsker gutikoa. Zaila. Gaizki ordaindua. Lanabes egokirik gabe egiten duguna. Nekez eta oker ikasten dena. Burutu ere nekez eta oker burutzen dena.» Agian gauzak argitu dira eskola liburuen idazleentzat, eta, diotenez, hedadura unibertsaleko lehen narraziogileak ditugu. Entsegu idazlearentzat,... zaharrak berri, besterik gabe; aldakuntza bakarra, gero eta gutxiago direla.

CXLIII *Tromba della Florida*

Honek dakar isolamenduaren arriskua, emaiten baitu guretzat eta lagunentzat soilki idazten dugula. Gainera, zerbaiten trukez, isolamendu honen erremedioa oso erraza da: aski du idazleak hautatzea politika instituzionalaren zerbitzua eta demokraziaren hizkuntza, kasteilanoa: berehala lortuko ditu ezagutza eta hedadura, nagusi españolei oroz gainetik laket baitzaie abertzaleak zein astoak diren ongi esplikatzen duen intelektual euskalduna...

Azurmendik ez du inoiz holakorik egingo. Euskara eta euskaldun zapalduen eremua hautatu ditu, era militante eta afektiboaz, dena batera: «*Literaturgintza eskuz-esku doa politikoaren lanarekin eta pasioarekin*», dio. Pasioa aipatzen du, sendimenduen alorra astintzen duen eremu irrazionala: gero itzuliko naiz hortaz. Bainan lana zer den badaki eta zorroztasun intelektuala atxiki du. Horregaitik, denbora berean sumintzen da eta irri egiten du Mediterraneoa deskubritu duten «Kriseilu buruko» sasi-intelektualei buruz...: «... historilari txit argiak argitu zaizkigu munduan, "euskal historiako mito" horiek ausarki jorratzen, abertzale mitozaleen kontra (...), enteratu gabe, nonbait, gerraosteko belaunaldi batek, dexente lehenago eta ofizioz historilari argi izan beharrik batere gabe, abandonatuak zituela bere kaxa ikuspide horiek.» Memoria historikoa dauka, eta erreferentzia unibertsalaz aberatsa da. Arerio krudel edo gazetilero tontolapikoari emaiten dien astinduak pozten gaitu.

Azurmendi 1941ean sortua da. Bere aukera esistentzialean gerra osteko belaunaldiaren egoera ikusten da; harek ere aitortzen du. Bere idazkietan usu aipatzen ditu gerraren ondorioak: literatura eta literaturgintza, apez idazleen ugaltasuna, olerkiaren edukin etsitua, dira hunkitu dituen gaiak eta denak herri osoaren bizitzarekin lotzen ditu. Bentzutua, humiliatua, ukatua zegoen herri euskaldunaren beldurra ezagutu zuen; Salbatore Miltxelenak bezala ikusi zuen «betiko gaua, gau lazgarria», bainan Azurmendik ez zuen etsi eta, hiltzekotan zegoen herri mutuaren baitan, erreboltarako bilakabidea ere antxeman zuen. Harekin identifikatu zen.

Nere ustez, zapalkuntza, humiliazioa eta beldurra ez dira izan españolekin izan dugun harreman modu bakarra, bainan bai modu

esankor eta sarkorra. Behar bada, izan ditugun harreman desberdinen funtsa hobekien izpilatzen duena: historian zehar, eta Azurmendiren hitzetan, gurea da «herri atzerantz doana, alde guztietatik hauzoek herstuturik, lurra galduaz inguru guztian eta bizia galduaz bizi guztian». Demokrazia denboretan ere, inoiz ahaztu behar ez ditugun gertaerak dira horiek.

Alta, beste posibilitateak ere badira. Irekiak direla sinestu nahi nuke (eta ez nahiz bakarra). Askatasun nazional eta iraultza soziala elkarrekin eraman nahi zituen nere belaunaldian, internazionalismoak leku zentrala zeukan; auzoekiko internazionalismoa, hain zuzen. *Espainolak eta euskaldunak* aipatzerakoan, Sanchez Albornoz ez nuke ahaztu nahi, bainan Pi i Margall gogoratu nahi nuke. Beharbada sobera inotzente naiz.

Aipatu behar dudan liburuan, hain zuzen, Jon Mirande dugu protagonista. Harentzat, internazionalismoaz eta humanismo unibertsalaz oratzen diren jarrerak endekatzearen ondorioak dira eta herriaren bizitza galtzorian ezartzen dute. Biolentziaren legea bururaino aplikatu behar da, eta herri azkar eta noble batek auzoak zanpatu behar ditu: hona biziaren legea.

Ez dakit noraino Azurmendiren aukera afektibo guztiz barnatua, herri mututu eta beldurtuaren haur argia izateak, ez duen kutsatzen Miranderi buruzko egiten duen erreflexioa. Ez dakit noraino etsai bera astintzeko gutiziak aukeraerazten dion esposaketa sistema. Ahal bezain ongi esplikatuko naiz.

Azurmendik seinalatzen duenez, gurean moral unibertsalaren monopolioa arrunt zapaltzaile eta kontserbadore ziren jauntxoek eta Elizak monopolizatu dute. Beren azpian euskal populu «zintzoa», mutua eta beldurtuta, galzorian gertatu da. Orain, demokrazia guztiz garbiaren monopolioa Estatu odoltsuak eta bere zerbitzari intelektual merkeek daukate. Jendilaje horiek guztiak Mirandek gogor astintzen ditu, eta nola.

Etsaiaren kontzientzia ona durduzan ikustea gustatzen zaigu. Bainan kritika guztiak ez dira berdinak. Demokrazia errepresenta-

CXLIII *Tromba della Florida*

tiboa faszistek eta anarkistek kritikatzen dute; zergatik eta zertarako kritikatzen duten ikusirik, bien arteko inkonpatibilitatea eta etsaigoa nabariak dira. Jelkideen memelokeria eta Estatu zanpatzaileen ankerkeria kritikatzeko, abiapundu eta helburu desberdinak ere izan daitezke.

Neretzat argi da. Abiapundu desberdinetatik abiatzen dira ikertzailea eta ikertua: Miranderen abertzaletasunaren oinarrian eskuin muturreko jarrera eta ideologiak dira, ziur asko abertzaletasuna baino lehenagokoak. Hau Iparraldeko abertzale zahar nahikotxori gertatu zitzaien: eskuin-mutur frantseraren baitan aurkitu zuten errepublika zentralista eta ezkertiarraren aurkako gorrotoa; eta jatorriak betirako markatuak egon dira. Azurmendirengan, abertzaletasuna da sustraia, eta inoiz ez da lerratu eskuin muturraren ideologia politikoa onartzera. Bainan, iduritzen zait, Mirandek beti eta Azurmendik liburu honetan behintzat, biolentziaren edukin etiko unibertsala bizitzeko beharren azpian ezartzen dute. Azurmendirengan, duen kontzientzia agonikoarengatik; Mirandek, berriz, nagusia izateko behar den biolentzia naturalaren apologia egiten du... Liburua kezkaz hartu nuela aitortzen dut.

Egia esan, Azurmendirengan nahikoa konstanteak dira razionalismoa eta mendebaldeko demokraziari buruzko mesfidantzak. «Arrazoizkotasun moderno europarraren historia, teoria geroz eta perfektoagoen historia izan da, Luis XIV.etik Auschwitz eta Goulagera»... Razionalismoarekin lotzen diren progresoa eta estatu legitimazio guztizduna batera salatzen ditu; honekin batera argi erakusten digu nola arrazionalitatea borroka tresna bezala erabiltzen den, hain zuzen sistemaren arrazionalitatea eta justifikazioa onartzen ez dituztenen aurka jotzeko: «Gizakia bere arrazoimenarekin definitzen bada, arrazionalitatea guretzat monopolizatu nahia, etsaiari pertsona izatea bera ukatzea da eta pertsona bakartzat geure buruak aitortu nahi izatea (...) Irrazionalak ez dira pertsonak. Horiek ez dira gizonak, piztiak dira. Eta desgizonarekin («ETA-ratas», etab.) badakizue Estatuek eta Inperioek zilegi zer izan duten egitea, arrazoizko jende prestuaren hiriak arratoi zikinetatik desinfektatzeko».

Miranderi buruzko liburuan razionala ez den ezagutzaz sakon eta luze idazten du. Dudarik gabe, intuizioaz, mitotaz eta sendimenduaz oratzen den ezagutza mota honek historia luzea du. Razionalismoaren gehiegikeria da abstrazio hutsa, pertsona eta herrien berezitasunak izaki unibertsalaren abstrazioaren aldarean ukatzen dituena. Gainera, eta hortan Frantzia da nagusi, ziudadanoaren abstrazio handia gihartzen da herri maioritarioaren nazionalismo arruntenean, inguruko kolonizatuen kaltetan. Ezagutza ez-razionala ere gure prozedura mentalen partea dela gogoratzeari ongi deritzot. Bainan Mirande eta bere maisuengan ezagutza eta nortasunarekin morala lotzen da: moral unibertsalak norberaren nortasuna ukatzen eta zikirotzen omen du, saldoan esklaboaren moral apala sortzen duelako. Arima nobleak bere barne ahotsari bakarrik obeditu behar omen dio... Pena da, diñot nik, azken finean arima noble aristokraten esistentzia besteen zapalkuntzaren gainean finkatu behar delako. Bizitzaren legea da, erantzuten didate...

Berriz, nik uste dut pertsonatasuna edozein jenderi aitortu behar zaion bezelaxe, badela gure partikulartasun pertsonal eta herritar guzien haraindian dagoen batasun funtsezkoa, denen arteko batasuna eta komunikazioa sustraitu dezakeen portaera unibertsala, humanismo orokorraz egina, arrazionaltasun amankomun batetan finkatua.

Bainan filosofiaz ez naiz oso trebe. Politikaz zerbait gehiago ikusi eta ikertu dut. Eta hortaz bada Miranderi buruzko entseguan beste pundu gordin bat, gordinago beharbada oraingo egoera ikusirik. Azurmendik gogoratzen duen bezala, Miranderen arrazismoa eta biolentziaren apologia ez dira debaldeko poseak, baizik eta sistema koherente baten ondorioak. Mirande euskal populuaren esistentzia eta etorkizunaz grinatzen da. Haren ustez, Mendebaldeko doktrina kristau-demokratiko-sozialistek endekatua (edo endekatuz gero doktrina horiek onartu dituelako, berdin zait), desager zorian dago; doktrina horiek esklaboarenak dira, saldoarenak. Harek dioenez, Azurmendik laburtzen duen bezala «gizarte bizitza, eta bereziki herrien arteko eta elkarrekiko existentzia, borrokazkoa dela, izan.

CXLIII *Tromba della Florida*

Errealitate horri begiratzen genion artean gu ere baginen zerbait, "enda sendo, azkar ororen antzora hauzo ahulagoaren bizkarretik hedatzera eta aberastera ekarriak ginelarik". (...) Jatorrizko gizon naturala gogo-basa dela, borrokaria eta nagusi-nahia. Bere natura jator eta bortitzaren arabera jokatzen duen herriak ere gudua egiten du.»

Azken finean, arazo filosofikoa (razionaltasuna versus irrazionalismoa, hau hartuta Azurmendik ematen dion zentzuan, eta ez batere era merke peioratiboaz) eta arazo politikoa (naziotasunaren oinarrian dagoen auzoak menperatzeko beharra) lotzen dira gehien kezkatzen nauen arazo batekin. Eta horrek esplikatzen du zergaitik hautatu dudan liburu honen komentarioa.

Nazionalismoaren bilakaeraz ari naiz, askatasun nazionalaren aldeko borrokak askatasun unibertsalezko borrokaren parte bezala konsideratzeko garaia bukatu denean. Gure belaunaldian, ETAren belaunaldian, munduko herri zapaldu eta langile zapaldu guztiak elkarrekin ginen, bakoitza bere lekuan eta danok balore amankomun komunistek baturik. Orain, etsaiak auzoak dira, eta bizitzeko auzoa zanpatu behar... Mirande aktualitatean dagola uste dut, eta ez onerako. Lagun batzuek esan didate bide oker batean lerratu eta tematu naizela, euskal nazionalismoa herri menperatu batena dela eta, beraz, faszismoaren aurka txertatua. Agian arrazoina dute eta nere kezka guztiak lan alferra dira; Azurmendik dionez «problema faltsuen soluzio ia bakarra ez planteatzea da»: bainan ez naiz hain ziur problema faltsua dela.

Aitortu behar dut nazionalismo eta faszismoaren arteko harremanek faszinatzen nautela. Euskal Herrian eta Alemanian. Miranderen kasua eta besteak. Alta, Auswitchz gertatu eta, oso tolerantzia gutxi diet faszismoaren baloreak bereganatzen dituztenei. Abertzaleak zirelako eta ustez hori zela gure aberriaren aldeko hoberena? Berdin zait: kondena gorriena.

Eta, hain zuzen, hori dago eskas, nere ustez, Azurmendiren liburuan; eruditoak ñabardura anitz aurkitzen du Miranderengan,

eta ñabardura horien izenean esaten digu Mirande faszistatzat hartzea sinplekeria dela; jelkideen lelokeriaz, españolisten erasotaz eta demokrateen harrokeriaz asper eginda dagoen euskaldunak arrazoin funtsezkoak aurkitzen ditu Miranderen sarkasmoetan eta haren biolentziarako deietan... Bainan ñabardurek ezin dezakete funtsa izkutatu: Mirande, adibidez, ez sabinianoak bezain zakarra euskal arraza eta espainol arraza kontrajartzeko, bainan beltz eta, bereziki, juduen kontra, arrunt arrazista zen, bortitza eta higuingarria; «Lizarrako progromaz borkariotu behar genduke(ela)» dioen aipamena Azurmendik berak ekartzen du.

Beraz, ñabarduren ikerketan diren egiak ahaztu gabe edo, hobe, haien konpainian, Miranderen egiazko faszismo arrazistaren kondena gogorra ere irakurri nahi nuen liburuan. Ez irakurtzeak durduzatu ninduen. Arazo hauek oso larriak dira, eta Azurmendiren esposaketak ongi eta sakonki zehazten ditu pentsakera irrazional eta elitistaren joan etorri guztiak, pentsakera honen kritika egin gaberik. Ados dela pentsatu behar dugu? Edo soilki esposaketa prozedura egokia dela?

Kezka kezka eginda heldu nintzen bururaino, eta han Lukácsek irrazionalismoari egiten dion kritika filosofiko-politikoari buruz zera irakurri nuen: «erreparo dexente egin beharra legoke». Ados. Bainan Lukácsi emandako egurra esposaketa baino haratago doa: zergatik ez besteei? Eta Azurmendiren historian eta ibilbide intelektualean arrazoinak bilatzen saiatu naiz. Gure arteko askorentzat lagun eta maisua delako. Egoera oso gogorren gaudela pentsatzen dut, desorientazio politiko eta etikoaren arrisku gorrian: dugun kontzientzia agonikoak, etxekoekin dugun solidaritateak ez digute lausotu behar. Piztiaren sabela oraindik dago ernai.

Azurmendik seinalatzen duen bezala, Miranderen eragina handia da Euskal Herriko pentsamendu modernoan: «(harek) ireki zuen Pandoraren kutxatik barreiatu dira haizeak...» Haize arre batzuen aurka hesiak altxatu behar.

Bukatzeko, gauza askotan bezala beste pundu batetan ere ema-

CXLIII *Tromba della Florida*

nen diot Azurmendiri arrazoina. Idazle konprometitua dela ezagguna da; gaurregun idazle konprometitua izatea ez da gure modernoen gustokoa. Batzuek bere izkribuak gogorrak aurkituko dituzte, eta bere engaiamendua intolerantea. Hain zuzen, orain demokraziak eskatzen duen tolerantzia biguin hori, harek kondenatzen du: «... Estatuak berak (tolerantziaren aldeko) propaganda egiten du, ideia denak diskutigarriak eta erlatiboak diren bitartean Boterea seguru bait dago». Hitz honen oihartzuna berrikitan entzun dut Parisen, etxegabekoak ohiltzeko poliziak bere biolentzia «legitimoa» erabiliz gero, Sinéren ahoan: «Spectacle révoltant et insupportable s'il en est! Ces tronches simiesques ricanent sous les casques et visières en exécutant leur basses besognes. (...) Allez là-bas faire votre plein de haine et de dégoût: c'est salutaire pour ne pas mourir *idiot et tolérant!*».

Biba zu, Joxe, eta gaizki esanak barkatu.

Hegats 10

1994ko martxoan
COPY-PRINT-en inprimatu zen.
Argitalpena 600 alekoa da